

12

Kuota likidoa eta kenkariak

12.1 Kuota likidoa

12.2 Kenkari familiar eta pertsonalak

12.2.1 Kenkaria ondorengo ahaideengatik (seme-alabak, bilobak, birbilobak...)

12.2.2 Kenkaria adopzioagatik

12.2.3 Kenkaria seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik

12.2.4 Kenkaria aurreko ahaideengatik (gurasoak, aiton-amonak, birraiton-amonak)

12.2.5 Kenkaria ezindua izateagatik

12.2.6 Kenkaria adinagatik

12.2.7 Nola zehazten da egoera pertsonal eta familiarra?

12.3 Kenkariak ohiko etxebizitzagatik

12.3.1 Kenkaria ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik

12.3.2 Kenkaria etxebizitza errentan emateagatik

12.3.3 Kenkaria ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik

12.4 Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak

12.4.1 Kenkaria inbertsio eta bestelako jarduerengatik.

12.4.2 Kenkaria langileek enpresan parte hartzeagatik

12.4.3. Kenkaria jarduera ekonomikoaren hasieran inbertitzeko kreditu entitateetan egindako gordailuengatik

12.5 Kenkaria dohaintzengatik

12.5.1 Mezenasgo jarduerengatik

12.6 Kenkaria ezarpen bikoitzagatik

12.6.1 Kenkaria dibidenduen ezarpen bikoitzagatik

12.6.2 Kenkaria nazioarteko ezarpen bikoitzagatik

12.7 Bestelako kenkariak

12.7.1 Kenkariak Ceuta edo Melillan lortutako errentengatik

12.7.2 Kenkariak nazioarteko gardentasun fiskaleko erregimenean

12.8 Kenkari jakin batzuen muga

12.9 Frogagiriak

12.1 Kuota likidoa

Kuota likidoa kuota osoari kenkarien zenbatekoa kenduz lortzen da. Kuota likidoa ezin da inoiz negatiboa izan.

LABURPENA

Kuota likidoa = Kuota osoa – kenkariak

Kenkari mota hauek bereizten dira:

- Kenkari familiar eta pertsonalak
- Ohiko etxebizitzaren kenkariak
- Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak
- Dohaintzen kenkariak
- Ezarpen bikoitzaren kenkaria
- Bestelako kenkariak

12.2 Kenkari familiar eta pertsonalak

Apartatu honen barruan sei kenkari hauek arautzen dira:

- Ondorengo ahaideena.
- Adopzionarena
- Seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik egiten dena
- Aurreko ahaideena
- Ezindua izateagatik egiten dena
- Adinagatik aplikatzen dena

Azter ditzagun banan-banan.

12.2.1 Kenkaria ondorengo ahaideengatik (seme-alabak, bilobak, birbilobak...)

Zenbatekoa da kenkaria?

Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzagatik kenkari hauek egingo dira:

- **469,00 euro** urtean, lehenengoagatik.
- **576,00 euro** urtean, bigarrenagatik.
- **867,00 euro** urtean, hirugarrenagatik.
- **1.122,00 euro** urtean, laugarrenagatik.
- **1.530,00 euro** urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzagatik.

ERNE: ondorengo ahaideak **6 urte baino gutxiago baditu**, zenbateko horiek **255,00 euro** gehituko dira urtean.

Baldintzak

- Ondorengo ahaideen adina **hogeita hamar urtetik gorakoa ez izatea**, kenkaria jasotzeko eskubidea duten ezinduak direnean izan ezik (itsuak, mutilatuak eta elbarri fisiko edo psikikoak).
- Ondorengo ahaideak dagokion zergaldian lortu dituen urteko errentak, salbuesitakoak barne, **7.182,00 eurokoak**¹⁰⁹ baino handiagoak ez izatea edo, bestela, beste familia unitate batean egonez gero, bertako kideetako inork ez lortzea dago-

kion zergaldian 7.182,00 eurotik¹¹⁰ gorako errentak, salbuesitakoak barne.

- Ondorengo ahaideek **ez aurkeztea** Zerga honen **aitorpena** dagokion zergaldiagatik.

Nola banatzen da kenkaria?

- Ondorengo ahaidea maila bereko aurreko ahaideekin bizi denean (aita eta amarekin, adibidez), kenkaria zati berdinetan hainbanatuko da horien artean.
- Aldiz, ahaidetasun maila desberdina duten aurreko ahaideekin bizi bada (guraso eta aiton-amonekin, adibidez), gertuen dauden aurreko ahaideek bakarrik izango dute kenkarirako eskubidea (gurasoek). Kasu horretan, kenkaria zati berdinetan ere hainbanatuko da horien artean. Hala ere, gertuen dauden aurreko ahaideek urtean lortu dituzten errentak 7.182,00 eurotik¹¹¹ gorakoak ez badira, kenkaria mailarik urrunekoek egin ahal izango dute.
- Epaileen erabakiz ondorengo ahaidea diruz mantentzeko obligazioa ezarri bada, kenkaria mantenuari aurre egiten dion gurasoaren aitorpenean egingo da baldin eta zama hori guraso horrek bakarrik bere gain hartu badu; aldiz, mantenu ekonomikoari bi gurasoek aurre egin behar diotenean, kenkaria erdibana egingo da guraso bakoitzaren aitorpenean. Horrelakoetan, epaile eskudunak ebaztitakoa beteko da, eta diru mantenu hori benetan eta behar bezala ordaindu dela frogatu beharko da.

Tutoretza eta etxean dohain hartzea

Adingabeok zergadunaren tutoretzapean daudenean edo hark diru trakerik gabe etxean hartzen dituenen, ondorengo ahaideen tratamendu bera izango dute (tutoretza edo etxean hartzea adingabeok babes gaietan eskudun den entitate publikoaren aurrean formalizatuko da).

Adibidea

Kenkaria egin al daiteke seme-alabengatik eta beste ondorengo batzuegatik jarraian aipatzen diren kasuetan? (aurreko ahaideekin bizi dira):

1. 17 urteko semea, 7.300,00 euroko errentak izan dituena.

Erantzuna: ez du kenkarirako eskubiderik ematen, bere urteko errentek lanbidearteko gutxieneko soldata gaintzen dute-lako (7.182,00 euro).

2. 26 urteko alaba ezkondua, diru sarrerarik izan ez duena. 2 urteko semea du. Senarrak 4.207,08 euro bakarrik jaso ditu 2005ean, langabezi prestazioa dela eta.

Erantzuna: 26 urteko alabak kenkarirako eskubidea ematen du. Izan ere, nahiz eta ezkondata egon eta beste familia unitate bateko kide izan, bere senarraren urteko errentak ez dira 7.182,00 eurokoak baino handiagoak. Gainera, alaba horren gurasoek bilobagatik egin dezakete kenkaria, umearen gurasoek izan dituzten errentak 7.182,00 eurotik beherakoak direlako. Kasu honetan, 1.300,00 euroko kenkaria egingo da: 469,00 € (alabagatik) gehi 576,00 € (bilobagatik) eta 255,00 € (bilobak 6 urte baino gutxiago izateagatik).

3. 25 urteko semea, 2.704,55 euroko errentak lortu dituena eta aitortpena aurkezten duena.

¹¹⁰ Kopuru hau lanbidearteko gutxieneko soldatari dagokio. Abenduaren 30eko 2388/2004 Errege Dekretuak ezarri du.

¹¹¹ Kopuru hau lanbidearteko gutxieneko soldatari dagokio. Abenduaren 30eko 2388/2004 Errege Dekretuak ezarri du.

¹⁰⁹ Kopuru hau lanbidearteko gutxieneko soldatari dagokio. Abenduaren 30eko 2388/2004 Errege Dekretuak ezarri du.

Erantzuna: aitorpena aurkezten duenez, ez du kenkarirako eskubiderik ematen.

4. 31 urteko seme minusbaliatua, errentarik gabea.

Erantzuna: kenkarirako eskubidea ematen du.

5. Errentarik gabeko semea, 2005eko otsailaren 1ean 30 urte bete zituena.

Erantzuna: ez du kenkarirako eskubiderik ematen zergaren sortzapen egunean (abendua 31n) 30 urte dituelako.

6. Gurasoak bost seme-alabarekin bizi dira, eta hauek dira beren adinak: 10, 15, 18, 20 eta 23 urte. Ezkondu gabe daude denak, eta ez dute errentarik jasotzen. Gainera, gurasoak 12 urteko ilobaren tutoreak dira.

Erantzuna: seiek ematen dute kenkarirako eskubidea. Hala ere, bi ezkontideekin batera bizi direnez, hauek zati berdinetan banatuko dute kenkaria nor bere aitopenean.

Kenkaria		Aitaren aitopena	Amaren aitopena
Lehenengoagatik	469,00 €	234,50 €	234,50 €
Bigarrenagatik	576,00 €	288,00 €	288,00 €
Hirugarrenagatik	867,00 €	433,50 €	433,50 €
Laugarrenagatik	1.122,00 €	561,00 €	561,00 €
Bosgarren eta hurrengoengatik	2 x 1.530,00 €	1.530,00 €	1.530,00 €
Zenbateko kenkaria, guztira		3.047,00 €	3.047,00 €

7. Senar-emazteak bananduta daude. Ama 17 urteko semearekin bizi da, eta aitak semearen mantenu ekonomikoan laguntzen du epaileak hala aginduta.

Erantzuna: semeak kenkarirako eskubidea ematen du. Dena den, kenkaria zati berdinetan hainbanatuko da guraso bakoitzaren aitopenean.

12.2.2 Kenkaria adopzioagatik

Zenbatekoa da kenkaria?

Adoptatzen den pertsona bakoitzagatik **612,00 euroko** kenkaria egiten da.

Nazioarteko adopzio batean bitartekari edo laguntzaile gisa jarduteko lege izaera aitortua duten entitate, organismo edo agentziei emandako kopuruen kasuan, aurreko paragrafoan ezarritako muga kopuruen horien **%20koa** ordainketa horiek aurrez justifikatzen badira.

Baldintzak

- Adopzioa indarrean dagoen legeriari jarraiki egin behar da.
- Kenkaria adopzioaren ebazpen judiziala ematen den zergaldian aplikatuko da.

Nola banatzen da kenkaria?

Adopzioa bi ezkontideek edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteko bi kideek egiten dutenean, kenkaria zati berdinetan hainbanatuko da.

12.2.3 Kenkaria seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik

Mantenu kontzeptuan seme-alabak elikatu, ostatu eman, jantzi, laguntza medikua hartu eta hezteko behar den guztia sartzen da.

Zenbatekoa da kenkaria?

Zergadunak **%15eko** kenkaria egin dezake mantenturako ordaindu dituen kopuruengatik, muga hauen barruan beti:

- **134,00 euro** urtean, lehen seme-alabagatik.
- **166,00 euro** urtean, bigarren seme-alabagatik.
- **198,00 euro** urtean, hirugarren seme-alabagatik.
- **256,00 euro** urtean, laugarren seme-alabagatik.
- **348,00 euro** urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzagatik.

Baldintzak

Kenkari hau egin ahal izateko, ezinbestekoa da zergadunak epaileen erabakiz ordaintzea seme-alaben urteko mantenturako kopuruak.

Adibidea

Eman dezagun dibortziatuta zaudela eta zure 11 urteko semea zure ezkontide ohiarekin bizi dela. Judizialki onartutako hitzarmenaren arabera, 901,52 euro ordaindu behar dituzu urtero zure semearen mantenturako. Honako kenkariak izango dituzu:

Semearengatik	469,00 € / 2	234,50 €
Urteko mantenua ordaintzeagatik	(901,52 €)ren %15 (134,00 €-ko mugarekin)	134,00 €

12.2.4 Kenkaria aurreko ahaideengatik (gurasoak, aiton-amonak, birraiton-amonak...)

Zenbatekoa da kenkaria?

Urte natural osoan zehar zergadunarekin modu iraunkor eta jarraituan bizi den aurreko ahaide bakoitzagatik **206,00 euroko** kenkaria egingo da.

Kenkari hau aplikatzearen ondorioetarako, ondoko kasu hau ere aurreko paragrafoan deskribatutako elkarbizitzarekin parekatuko da: aurreko ahaidea urte natural osoan egoitza zentro batean bizitzea modu jarraitu eta iraunkorrean, eta egonaldiaren gastuak ondorengo ahaideak ordaintzea bere ondaretik egoitzari.

Baldintzak

- Dagokion zergaldian aurreko ahaideak izan dituen urteko errentak, salbuetsitakoak barne, **7.182,00 eurotik** gorakoak ez izatea¹¹².
- **Beste familia unitate batean egonez gero**, bertako kideetako inork izan dituen urteko errentak, salbuetsitakoak barne, **7.182,00 eurotik gorakoak** ez izatea dagokion zergaldian¹¹³.
- Aurreko ahaideak **ez aurkeztea** Zerga honen **aitopena** dagokion zergaldiagatik.

Nola banatzen da kenkaria?

- Aurreko ahaidea maila bereko ondorengo ahaideekin bizi denean (seme-alabekin, adibidez), kenkaria zati berdinetan hainbanatuko da ondorengo artean.
- Aldiz, ahaidetasun maila desberdina duten ondorengo ahaideekin bizi bada (seme-alaba eta bilobekin, adibi-

¹¹² Kopuru hau lanbidearteko gutxieneko soldatari dagokio. Abendua 30eko 2388/2004 Errege Dekretuak ezarri du.

¹¹³ Kopuru hau lanbidearteko gutxieneko soldatari dagokio. Abendua 30eko 2388/2004 Errege Dekretuak ezarri du.

dez), gertuen dauden ondorengo ahaideek bakarrik izango dute kenkarirako eskubidea (seme-alabek). Kasu horretan, kenkaria zati berdinetan ere hainbanatuko da horien artean. Hala ere, gertuen dauden ondorengo ahaideek urtean lortu dituzten errentak 7.182,00 eurotik gorakoak ez badira¹¹⁴, kenkaria mailarik urrunenekoek egin ahal izango dute.

- Aurreko ahaideak egoitzetan bizi badira, kenkaria mailarik hurbileneko ahaideek egingo dute baldin eta, beharrezko faktura aurkeztuta, frogaturik uzten badute aurreko ahaidea egoitzan egoteko gastuak beraiek ordaindu dituztela. Gastu horiek maila bereko ondorengo ahaide batek baino gehiagok ordaindu baditu, kenkaria zati berdinetan hainbanatuko da haien artean.

Adibidea

Eman dezagun 76 urte dituzula, zure urteko errentak 4.808,10 eurokoak direla, eta adin nagusiko zure hiru semeekin bizi zarela.

Dakigunez, ondorengo ahaide bakoitzagatik 206,00 euroko kenkaria egin daiteke. Kasu honetan, hiru semeekin bizi zarenez, kopuru hori zati hiru egingo da:

	Kenkaria
Lehen semea	68,67 €
Bigarren semea	68,67 €
Hirugarren semea	68,67 €

12.2.5 Kenkaria ezindua izateagatik

12.2.5.1 Kenkaria zergaduna, aurreko nahiz ondorengo ahaidea, ezkontidea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-laguna, edo laugarren mailarainoko zeharkako ahaidea ezindua izateagatik.

Zenbatekoa da kenkaria?

Ezintasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza kontuan hartuta honako kenkaria aplikatuko da:

Ezintasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza	Kenkaria
Minusbaliotasuna %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa bada	612,00 €
Minusbaliotasuna %65koa edo handiagoa bada	938,00 €
Minusbaliotasuna %75koa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 eta 39 puntu bitartean lortuz	1.122,00 €
Minusbaliotasuna %75koa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortuz	1.428,00 €

¹¹⁴ Kopuru hau lanbidearteko gutxieneko soldatari dagokio. Abenduaren 30eko 2388/2004 Errege Dekretuak ezarri du.

¹¹⁵ Senitartekoen errentak ezin dira, zergaldiaren barruan, lanbidearteko gutxieneko soldataren bi halakoak baino handiagoak izan. Abenduaren 30eko 2388/2004 Errege Dekretuaren arabera, lanbidearteko gutxieneko soldata 7.182,00 eurokoa da.

Baldintzak

- Ezindua zergadunak berak izan behar du edo, bestela, aurreko edo ondorengo ahaide batek, ezkontideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunak, edo laugarren mailarainoko zeharkako ahaideren batek. Kasu horretan, ahaideek, euren adina edozein dela ere, zergadunaren menpe egon behar dute, eta beren urteko errentak ezin dira zergaldiaren barruan 14.364,00 eurokoak baino handiagoak izan¹¹⁵.
- Minusbaliotasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntzaren puntuak abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak I. eta II. eranskinetan ezarritakoaren arabera neurtuko dira.
- Kenkari hau bateragarria da aurreko apartatuetan adierazitakoekin (ondorengo ahaideak, aurreko ahaideak, mantenua).
- Pertsona ezindua aitortpena aurkezten badu, bi aukera izango ditu: kenkari osoa berak aplikatzea edo, bestela, bera zaintzen duen zergadunak osorik aplikatzea dezan uztea. Bigarrena aukeratzen bada eta ezindua zergadun baten baino gehiagoren mende badago, kenkaria zati berdinetan hainbanatuko da zergadun bakoitzaren artean.

Tutoretza eta etxean dohain hartzea

Kenkari hau aplikatu ahal izango da, halaber, pertsona ezindua zergadunaren tutoretzapean dagoenean edo hark etxean dohain hartzen duenean (adingabekoen babes gaietan eskudun den entitate publikoaren aurrean formalizatuko da tutoretza edo etxean hartzea). Horretarako, apartatu honetan errenta eta elbarritasun mailari buruz adierazi diren baldintzak bete behar dira.

12.2.5.2 Kenkaria 65 urteko edo hortik gorako pertsona ezindua kargupean hartzeagatik

Zenbatekoa da kenkaria?

Ezintasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza kontuan hartuta honako kenkaria aplikatuko da:

Ezintasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza	Kenkaria
Minusbaliotasuna %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa bada	306,00 €
Minusbaliotasuna %65koa edo handiagoa bada	469,00 €
Minusbaliotasuna %75koa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 eta 39 puntu bitartean lortuz	561,00 €
Minusbaliotasuna %75koa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortuz	714,00 €

Baldintzak

- Kenkari hau aplikatuko da aurreko apartatuko ahaide edo asimilatuen artean ageri ez den 65 urteko edo hortik gorako pertsona ezindua bat zergadunarekin bizi denean.

- Minusbaliotasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntzaren puntuak abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak I. eta II. eranskinetan ezarritakoaren arabera neurtuko dira.
- Pertsona ezinduek 14.364,00 eurotik¹¹⁶ beherako errentak eduki behar dituzte.
- Zergadunak ezingo du kenkari hau egin 12.2.5.1 apartatuan jasotzen den minusbaliotasun kenkaria aplikatzen badu.
- Pertsona ezinduak aitortpena aurkezten badu Zerga nonenagatik, bi aukera izango ditu: kenkari osoa berak aplikatzea edo, bestela, bera zaintzen duen zergadunak osorik aplikatzea dezan uztea. Bigarrena aukeratzeko bada eta pertsona ezindua zergadun baten baino gehiagoren mende badago, kenkaria zati berdinetan hainbatatuko da zergadun bakoitzaren artean.

Adibidea

Eman dezagun zure urteko errenta 10.818,22 eurokoa dela. Gainera, %33ko minusbaliotasun maila duzu. Zurekin bi pertsona bizi dira:

- Batetik, zure aita, 70 urtekoa, %70eko minusbaliotasun maila duena eta 2005ean inolako errentarik izan ez duena.
- Bestetik, familiaren 68 urteko lagun bat, %80ko minusbaliotasuna duena. Honek beste pertsona baten laguntza behar du oinarriko gauzak egiteko (45 puntu eman zaizkio hirugarren pertsonen laguntzagatik). Gainera, 2005ean ez du errentarik izan.

Zenbateko kenkariak egin ditzakezu?

Zure minusbaliotasunagatik		612,00 €
Zure aita minusbaliatuagatik	aurreko ahaidearengatik	206,00 €
	ezintasunagatik	938,00 €
Zurekin bizi den 65 urtetik gorako pertsona ezinduagatik		714,00 €
GUZTIRA		2.470,00 €

12.2.6 Kenkaria adinagatik

Zenbatekoa da kenkaria?

- 65 urtetik gorako zergadun bakoitzagatik: 204,00 euro.
- 75 urtetik gorako zergadun bakoitzagatik: 408,00 euro.

12.2.7 Nola zehazten da egoera pertsonal eta familiarra?

Kenkari hauetarako eskubidea ematen duten zirkunstantzia pertsonal eta familiarrek zehazteko, zergaren sortzapen egunean dagoen egoerari begiratuko zaio (normalean, abenduaren 31n dagoen egoera hartzen da kontuan).

Kenkari horiek konputatzeko garaian, kalkulua ez da inoiz ere izango kenkariak aplikatzeko exijitutako zirkunstantziak gertatu diren urte naturaleko egun kopuruaren arabera.

Aurreko apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, kenkarirako eskubidea sortzen duen pertsona zergaldiaren barruan hiltzen bada, kenkari hauek aplikatzeko kontuan hartuko diren zirkunstantzia pertsonal eta familiarrek pertsona horren heriotzaren egunean dagoen egoera kontuan hartuz zehaztuko dira, kenkariaren zenbatekoa egun horretara arte proportzionalki murriztu gabe.

Adibidea

Eman dezagun zurekin hiru seme bizi direla:

- Lehen semea, 8 urtekoa eta %40ko minusbaliotasuna duena, 2005eko abuztuaren 1ean hil zen trafikoi istripu batean.
- Bigarren semea 1999ko azaroaren 16an jaio zen. Beraz, 2005eko azaroaren 16an 6 urte bete ditu.
- Hirugarren semea 2005eko abenduaren 1ean jaio zen.

Zenbateko kenkariak egin ditzakezu?

Lehen seme minusbaliatuagatik	ondorengo ahaideagatik	469,00 €
	minusbaliotasunagatik	612,00 €
Bigarren semeagatik	ondorengo ahaideagatik	576,00 €
Hirugarren semeagatik	ondorengo ahaideagatik	938,00 €
	6 urtetik beherakoagatik	255,00 €
GUZTIRA		2.779,00 €

LABURPENA: kenkari motak

Kenkari motak	Kenkariaren zenbatekoak	
Ondorengo ahaideengatik	469,00 euro urtean, lehenengoagatik	+ 255,00 euro, 6 urte baino gutxiago badituzte
	576,00 euro urtean, bigarrenagatik	
	867,00 euro urtean, hirugarrenagatik	
	1.122,00 euro urtean, laugarrenagatik	
	1.530,00 euro urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzagatik	
Adopzioagatik	612 euro	nazioarteko adopzioen esparruan kreditatuta dauden entitateei ordaindutako kopuruaren %20
Mantenuagatik	%15	Mugak: 134,00 euro urtean, lehen seme-alabagatik 166,00 euro urtean, bigarren seme-alabagatik 198,00 euro urtean, hirugarrenagatik 256,00 euro urtean, laugarrenagatik 348,00 euro urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzagatik

¹¹⁶ Pertsona ezinduen errentak ezin dira, zergaldiaren barruan, lanbidearteko gutxieneko soldataren bi halakoak baino handiagoak izan. Abenduaren 30eko 2388/2004 Errege Dekretuaren arabera, lanbidearteko gutxieneko soldata 7.182,00 eurokoa da.

Aurreko ahaideengatik		206,00 euro	
Ezindua izateagatik	Zergaduna, aurreko edo ondorengo ahaideak, ezkontidea, izatezko bikote-laguna, edo laugarren mailaramoko zeharkako ahaideak	Minusbaliotasuna %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa bada	612,00 euro
		Minusbaliotasuna %65ekoa edo handiagoa bada	938,00 euro
		Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 eta 39 puntu bitartean lortuz	1.122,00 euro
		Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortuz	1.428,00 euro
	65 urteko edo horik gorako pertsona, mugikortasuna murriztua duenean edo laguntza behar duenean:	Minusbaliotasuna %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa bada	306,00 euro
		Minusbaliotasuna %65ekoa edo handiagoa bada	469,00 euro
		Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 eta 39 puntu bitartean lortuz	561,00 euro
		Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortuz	714,00 euro
	Adinagatik	- 65 urtetik gorakoentzat: 204,00 euro. - 75 urtetik gorakoentzat: 408,00 euro.	

12.3 Kenkariak ohiko etxebizitzagatik

Aurrera jo baino lehen, ohiko etxebizitza zer den argitu beharra dago.

Zer da ohiko etxebizitza?

Ohiko etxebizitzatzat hartzen da zergadunak **hiru urteko** epe jarraituan bizitzeko erabiltzen duena.

Hala ere, etxebizitza ohikoa dela joko da, baita ere, hiru urteko epe hori igaro ez arren, zergaduna hil denean, edo ezinbestez etxebizitzaz aldatzera behartu duten zirkunstantziak gertatu direnean, hala nola: etxebizitza ez egokitzea zergadunaren, ezkontidearen edo harekin bizi den ondorengo edo aurreko ahaidearen ezintasun mailara edo zergaren kuota osoan kenkaria egiteko eskubidea ematen duen pertsonarenera, edota senar-emaztegaiak ezkontzea, senar-emazteak banantzea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikotea desegitea, lantokia aldatzea, lehen enplegua lortu edo aldatzea, edo antzeko beste egoerak gertatzea.

ERNE: ohiko etxebizitzaren kontzeptutik kanpo geratuko dira lorategiak, parkeak, igerileku eta kirol instalazioak, garajeak eta, oro har, eranskinak eta etxebizitza bera ez diren elementu guztiak. Aldiz, elementu horiek kontzeptu horren barruan sartuko dira etxebizitzarekin batera finka erregistratzen bakarria osatzen dutenean.

Familia unitateko kideek etxebizitza bat baino gehiago dutenean jabetzan, horietako **bat bakarrik hartuko da ohiko etxebizitzatzat**. Horretarako kontuan edukiko da non duen familia unitateak bere bizitza interesen eta harreman pertsonal, sozial eta ekonomikoaren gune nagusia.

Etxebizitza bat zergadunaren ohiko etxebizitzatzat hartzeko, beharrezkoa da zergaduna **hamabi hilabetez** bizitzea bertan modu iraunkorrean etxebizitza erosi edo obrak amaitu direnetik aurrera. Hurrengo kasuetan, ordea, ohiko etxebizitza izaten jarraituko du:

- Zergaduna hiltzen denean edo etxebizitza okupatzea eragozten duten zirkunstantziak gertatzen direnean (ezkontzea, senar-emazteak banantzea, lantokiz aldatzea,...).
- Bere kargu edo enplegua dela-eta zergadunak beste ohiko etxebizitza bat duenean eta, horren ondorioz, erosi berri duen etxebizitza erabiltzen ez duenean. Horrelakoetan, hamabi hilabeteko epea kargua edo enplegua uzten duenetik aurrera kontatuko da.

Aurreikusitako salbuespenak aplikatzen direnean, ohiko etxebizitza erosteagatik egiten den kenkaria etxebizitza derrigorrez aldatzera behartzen duten edo etxea okupatzea eragozten duten zirkunstantziak gertatu arte aplikatuko da. Hala ere, zergadunak kargu edo enpleguagatik erabiltzen badu ohiko etxebizitza, kenkari hau egiten jarraitu dezake egoera horrek dirauen bitartean eta etxebizitza erabiltzen ez den artean.

Tratamendu hori bera aplikatuko da zergadunak etxebizitzaren beharra konpentsatzeko kopuruak jasotzen dituztenean eta, gainera, etxebizitza familia unitateak kanpoko pertsonak erabiltzen ez dutenean.

Apartatu honetan lau kenkari hauek arautzen dira:

- Ohiko etxebizitza errentan hartzea.
- Etxebizitza errentan ematea.
- Ohiko etxebizitzan inbertitzea.

12.3.1 Kenkaria ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik

Zenbatekoa da kenkaria?

Ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik zergaldian diru kopuruak ordaindu dituzten zergadunek bi kenkari hauetako bat aplikatu dezakete:

- Zergaldian ordaindutako kopuruen %20, 1.600,00 euroko mugarekin urtean.
- Zergaldian ordaindutako kopuruen %25, 2.000,00 euroko mugarekin urtean, ondorengo kasuetan:
 - 35 urtetik beherakoak direnean. Zergadunaren adina zehazteko zergaldiko lehen egunean dagoen egoerari begiratuko zaio.
 - Familia ugariaren titularrak direnean. Familia ugariaren titularitatea zehazteko, zergaldiko lehen egunean dagoen egoerari begiratuko zaio.
 - Lanerako ezintasun iraunkor bat aitortua dutenean, maila osokoa, erabatekoa, edota elbarritasun handikoa.
 - Etxebizitzaren errentariak direnean eta "Etxebizitza Hutsaren Programa" sustatu eta bultzatzen duen abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuak xedatutakora bilduta daudenean.

Arau berezia batera egiten den aitortzearen 35 urtetik gorako eta beherako zergadunak daudenean

Batera tributatzea aukeratzeko bada eta ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik aplikatzen den kenkarirako eskubidea dutenak pertsona bat baino gehiago badira, batzuk 35 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, bakoitzak dagokion portzentaje eta muga aplikatuko ditu lehen ezarritakoaren arabera.

Arau berezia ezkontza baliogabetu, senar-emazteak banandu edo dibortziatu edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikotea desegiten denean

Ezkontza baliogabetzen bada, senar-emazteak banandu edo dibortziatzen badira edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikotea desegiten bada, zergadun batek ondoko kasuotan egin ahal izango du bere aitopenean ohiko etxebizitzaren alokairuagatik dagokion kenkaria:

- Agintari eskudunek zergadunari agindu diotenean etxebizitza familiarraren alokairu osoa berak ordaintzeko.
- Judizialki onartutako hitzarmenean ezarri denean etxebizitza familiarraren alokairu osoa zergadun horrek ordaindu behar duela.

Dena den, alokairua ordaintzeko obligazioa bi zergadunei badagokiek, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzaren aitopenean egingo da bakoitzari dagokion proportzioan. Portzentajea eta muga etxebizitza horretan bizi den zergadunarentzat ezarritakoak izango dira.

12.3.2 Kenkaria etxebizitza errentan emateagatik

Etxebizitza errentan emateagatik lortutako etekin garbiaren 100eko 20ko kenkaria egin dezake errentatzaileak. Altzariak, trastelekuak, garaje plazak eta etxebizitzaren eranskinak barruan sartzen dira etxebizitzarekin batera errentan ematen direnean.

Baldintza

Azaroaren 24ko 29/1994 Legeak, Hiri Errentamenduei buruzkoak, 2. artikuluan aipatzen dituen errentamenduak izan behar dute.

Kenkari hau etxebizitzaren edo hauen gaineko gozamen eskubide errealek titularrek ere aplikatu ahal izango dute haien erabilera geroago errentan jartzeko lagatzen dutenean Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuak, hutsik dauden etxebizitzetako buruzko "Bizigune Programa" sustatu eta bultzatzekoak, xedatutakoaren arabera. Kenkaria muga eta baldintza berdinekin aplikatuko da.

Muga

Familia unitatean dagoen errentatzaile bakoitzeko, gehieneko kenkaria 1,600 eurokoa izango da.

12.3.3 Kenkaria ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik

Zergadunek kenkari bat aplikatu dezakete ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik eta, hala badagokio, hura finantzatzeagatik.

Zer da ohiko etxebizitzan inbertitzea?

- Dirua erabiltzea ohiko etxebizitza erosteko. Ez dira etxebizitza erosketatzat hartzen honako hauek:
 - **Artapen gastuak** (pintaketa, entokadura,...) edo konponketa gastuak (berogailua edo igogailuak konponetzea, iturgintza lanak egitea,...)
 - **Hobekuntzak** (altzariak, seguritate ateak edo kontraileihoak jartzea,...).
 - Garaje plazak, lorategiak, parkeak, igerileku eta kirol instalazioak eta, oro har, eranskinak edo etxebizitzare-

kin batera finka erregistral bakarra osatzen ez duen beste edozein elementu eskuratzea.

- Dirua erabiltzea ohiko etxebizitza **birgaitzeko**¹¹⁷.
- Ohiko **etxebizitza erosi edo birgaitzen sortu diren gastuak** zergadunak ordaintzea (BEZA, notarioaren gastuak, jabetza erregistroa...). Finantzazio gastuak (hau da, interesak) ez dira sartzen.
- **"Etxebizitza kontuetan"** diru kopuruak gordailutzea. Kenkarriak izango dira baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak bakar-bakarrik ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabiltzen badira kontua ireki denetik hasi eta 6 urteko epean. Kenkarirako eskubidea hurrengo kasuetan galduko da:
 - Zergadunak kenkari eskubidea sortu duten eta etxebizitza kontuan utzi diren kopuruak bere ohiko etxebizitza erostea edo birgaitzea ez diren helburuetarako erabiltzen dituztenean eta kopuru horiek kreditu entitate bereko edo beste entitate bateko beste kontu batean osorik birjarri edo aldatzen ez direnean. Kopuruen zati bat erabiltz gero, zergadunak erabilitako kopuruak lehenabizi gordailututakoak direla ulertuko da.

Zergaduna hiltzen bada aurreko apartatuan aipatu den sei urteko epea amaitu baino lehen, etxebizitza kontuko kopuruak ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzera zuzentzeko obligazioa ez da bete gabekotzat hartuko.

- Kontua ireki denetik sei urte igaro direnean eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabili ez direnean.
- Ohiko etxebizitza geroago erosi edo birgaitzen denean kenkari honetarako exijitzen diren baldintzak bete gabe.

Zergadun bakoitzak etxebizitza kontu bat bakarrik izan dezake.

Etxebizitza kontuak bereizik identifikatuko dira Zergaren aitopenean. Gutxienez datu hauek adieraziko dira:

- Kontua zein entitatetan ireki den.
- Kontuaren zenbakia.
- Irekiera data.
- Saldoa zergaldiaren hasieran eta amaieran.

Aurretik egindako kenkarietarako eskubidea galtzen denean, zergadunak honako kopuruak gehitu beharko dizkio baldintzak bete ez diren ekitaldian sortu den Zergaren kuota: egin diren kenkariak gehi dagozkien berandutza interesak¹¹⁸.

Zein beste kasu dira erosketaren edo birgaitzaren parekoak?

Hona hemen ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatzen diren beste kasu batzuk, kenkari honetarako eskubidea ere ematen dutenak:

- Etxea handitzea.
- Etxea eraikitzea.

¹¹⁷ Birgaitzea izango da Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzkoak, jasotzen dituen baldintzak betetzen dituen edo, bestela, ekainaren 12ko 1186/1998 Errege Dekretuak edo honen ordezko arau estataleak xedatutakoaren arabera babestutako jarduera gisa kalifikatzen dena.

¹¹⁸ Ikus Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergen Foru Arau Orokorra (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua). Berandutza interesa 26. artikuluan arautzen da.

- Azalera eskubidea eskuratzea.
- Pertsona minusbaliatuen etxebizitzan egokitze eta aldatze lan eta instalazioak egitea.

Azter ditzagun banan-banan.

1. Etxea handitzea.

Horretarako beharrezkoa da azalera habitagarria modu iraunkorrean eta urteko sasoi guztietan handitzea. Handitze hori estali gabeko zatia itxiz nahiz beste edozein modutara erabiliz egin daiteke.

2. Etxea eraikitzea.

Zergadunak zuzenean ordaindu behar ditu obren gastuak edo, bestela, konturako ordainketak egin behar dizkio obren sustatzaileari, beti ere inbertsioa hasi eta lau urteko epea igaro baino lehen amaitzen badira obrak.

Lau urteko epe hori honako kasuetan luza daiteke:

- Epaileak onartutako konkurtsoa. Sustatzaileak ez baditu eraikuntza lanak amaitzen lau urteko epea igaro baino lehen edo etxebizitzak ezin baditu epe horretan eman, epe hori lau urtez luzatuko da zuzenean, eta etxea okupatzeko ezarritzen den hamabi hilabeteko epea etxea ematen den egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Epea luza dadin, hasierako epea bete ez den zergaldiko aitortpenarekin batera, zergadunak etxebizitzan egindako inbertsioen frogagiriari eta lehen adierazitako egoeretak bat gertatu izanaren beste edozein frogagiri aurkeztu beharko ditu.

- *Zergadunarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik obrak gelditu eta lau urteko epean amaitu ezin direnean.* Kasu honetan, zergadunak epea luzatzeko eskatu behar dio Zerga Administrazioari. Horretarako hilabeteko epea izango du lau urteko epea bete ez den egunetik aurrera. Eskaeran honako hau adieraziko da:

- Epea zergatik ez den bete.
- Zenbat denbora beharko duen, bere ustez, eraikuntza lanak amaitzeko (denbora hori ezin da lau urtekoa baino handiagoa izan).

Eskaerarekin batera, zergadunak bidezko frogagiriari aurkeztuko ditu. Dokumentazioa ikusi ondoren, Zerga Administrazioak epea luzatzea bidezkoa den eta zenbat luzatuko dion erabakiko du. Erabakitzen den luzapenak ez du zertan bat etorritik zergadunak eskatutakoarekin. Hiru hilabeteko epean espreski ebazten ez diren luzapen eskaerak ezetsitatz hartuko dira.

Epea bete ez den biharamunetik aurrera hasiko da kontatzen luzapena.

3. Azalera eskubidea eskuratzea

Kasu honetan, beharrezkoa da ohiko etxebizitza izango den ondasun higiezinaren azalera eskubidea titularitate publikoko lurzoru baten gainean eratuta egotea.

4. Pertsona minusbaliatuek egokitze eta aldatze lan eta instalazioak egitea

Hemen sartzen dira ohiko etxebizitzan egokitze lan eta instalazioak egitea, etxearen eta kalearen artean nahitaezko pasabide gisa erabiltzen diren elementu komunak aldatzea, hala nola eskaillerak, igogailuak, korridoreak, atariak edo beste edozein elementu arkitektoniko, eta, halaber, minusbaliatuen komunikazio sentsorialaren oztopoak gainditu edo segurtasuna emateko balio duten dispositibo elektronikoak jartzea.

Era berean, errentari, azpierrenerari edo usufruktario gisa okupatutako etxebizitzetan egiten diren egokitze lan eta instalazioak kontzeptu honen barruan sartzen dira, obra horiek egiten dituztenak honako hauek direnean: zergadun minusbaliatua, minusbaliatu batekin bizi den zergaduna –minusbaliatu hori izan daiteke, aurreko edo ondorengo ahaide bat, ezkontidea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikotegaina edo adingabeak babesteko gaietan aginpide duen entitate publikoaren adostasunez, tutoretzapean edo diru trukerik gabe etxean hartua duen pertsona bat-, eta 65 urteko edo hortik gorako pertsona batekin bizi den zergaduna, beti ere minusbaliotasun maila eta laguntza beharra frogatzen bada.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren organo eskudunak, Migrazio eta Gizarte Zerbitzuetako Institutuak edo Autonomia Erkidegoko organoak ziurtatu egin beharko dute egokitze obra eta instalazio horiek beharrezkoak direla pertsona minusbaliatuen irisgarritasuna eta komunikazio sentsoriala errazten dutelako eta duintasunez moldatzeko aukera ematen dietelako.

Aipatutako obrak ondoko hauek egingo dituzte:

- Zergadun minusbaliatuak.
- Minusbaliatu batekin bizi den zergadunak –minusbaliatu hori izan daiteke aurreko edo ondorengo ahaide bat, ezkontidea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikotegaina, edo adingabeak babesteko gaietan aginpide duen entitate publikoaren adostasunez, tutoretzapean edo diru trukerik gabe etxean hartua duen pertsona-.
- 65 urteko edo hortik gorako pertsona batekin bizi den zergadunak, beti ere bere minusbaliotasun maila eta hirugarren pertsonen laguntza beharra frogatzen baditu.
- Beren ohiko etxebizitzaren elementu komunak aldatzeko lanak ordaintzera behartuta dauden jakekideek. **Zer hartu behar da kontuan kenkaria aplikatu nahi bada ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik?**

Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kenkaria egiteko, ondorengo erregelak aplikatuko dira:

- Kenkari honetarako aplikatzen diren erregela orokorrak.
- Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kenkaria egiteko aplikatzen diren erregela bereziak, 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen erosketak edo birgaitetak kenkaria izan duenean.
- Konpentsazio erregimena. Kasu honetan aplikatzen da: ohiko etxebizitza 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi denean eta kenkari honetarako eskubidea ematen duenean, beti ere kenkari hori arautzen duen erregimen berriak Errenta Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauan jasotakoak baino onura gutxiago badakar.
- Arau berezia ezkontza baliogabetu, senar-emazteak banandu edo dibortziatu edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikotea desegiten denean.

12.3.3.1 Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kenkaria egiteko aplikatzen diren erregela orokorrak.

Zenbatekoa da kenkaria?

- **Inbertsio gisa**, ekitaldian **inbertitutako kopuruen %15**, eroslearen kontura izan diren gastuak barne.

Zergadunak zergaldiaren hasieran (2005eko urtarrilaren 1ean) 35 urte baino gutxiago baditu edo familia ugari baten titular edo kide bada, %15 aplikatu beharrean %25 aplikatu ahal izango du. 35 urtetik beherakoen kasuan, %25eko portzentajea aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da pentsio konpentsagarrien eta urteko mantenturako ordainketen mu-

rizpenekin gutxitutako oinarri ezargarria 30.000,00 eurokoa baino handiagoa ez izatea.

%25eko portzentajea ez da etxebizitza-kontuan inbertitzen denean aplikatuko.

- **Finantzazio gisa**, ohiko etxebizitzan inbertitzeko besteren kapitalak erabiltzeagatik ekitaldian **ordaindu diren interesen %20**. Horretarako, kopuru horiek aurreko puntuan aipatu den kenkaria aplikatzeko eskubidea eman behar dute dela zergaldiaren barruan dela hurrengo zergaldietan.

Zergadunak zergaldiaren hasieran (2005eko urtarrilaren leian) 35 urte baino gutxiago baditu edo familia ugari baten titular edo kide bada, %20 aplikatu beharrean %30 aplikatu ahal izango du. 35 urtetik beherakoen kasuan, %30eko portzentajea aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da pensio konpentsagarrien eta urteko mantenurako ordainketen murrizpenekin gutxitutako oinarri ezargarria 30.000,00 eurokoa baino handiagoa ez izatea.

ERNE: Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik egin daitezkeen kenkaria kalkulatzeko, **inbertsio eta finantzazio kontzeptuen zenbatekoak batuko dira**, aurrerago zehazten diren baldintza eta mugekin.

Zein muga ditu ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik egiten den kenkariak?

Zortzi apartatutatan banatuko ditugu kenkariaren mugak:

- Etxebizitzan inbertitzeagatik zergadun bakoitzak gehienez egin dezakeen kenkaria.
- Ohiko etxebizitza elkarrekin erosten dutenek etxebizitzan inbertitzeagatik gehienez egin dezaketan kenkaria.
- Zergadun bakoitzak interesak direla-eta gehienez egin dezakeen kenkaria.
- Ohiko etxebizitza elkarrekin erosten dutenek interesak direla-eta gehienez egin dezaketan kenkaria.
- Inbertsio gehi interesengatik egin daitezkeen kenkariaren muga globala.
- Ondare gehikuntzari ezartzen zaion muga.
- Ahalegin inbertsorearen muga.
- Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik (inbertsioa gehi interesak), eta mezenasgo jarduerengatik egin daitezkeen kenkariaren muga globala.

Azter ditzagun banan-banan.

a) Etxebizitzan inbertitzeagatik zergadun bakoitzak gehienez egin dezakeen kenkaria.

Zergadunarentzat ezartzen den mugari dagokionez, ohiko etxebizitza 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera erosteagatik zergadun bakoitzak inbertsio kontzeptupean hurrengo zergaldietan (1999ko urtarrilaren 1etik aurrera kontatuta) egin dezakeen kenkaria ezin da **30.000,00** eurotik gorakoa izan. Beste era batera esanda: zergadun batek 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera gehienez egin dezakeen kenkari fiskala 200.000,00 euroko etxe bat erosteagatik dagokiona izango da; izan ere, 200.000,00 euroko kopuru horri %15 aplikatzen badiogu (inbertsioaren kenkaria), 30.000,00 euroko zenbatekoa ateratzen da. 200.000,00 euro horien barruan erosketan sortu diren gastuak sartzen dira (notarioa, zergak, etab.), zergadunaren kontura doazenak.

Horren arabera, pertsona batek 120.202,42 euroko etxe bat erosten badu, kenkaria 18.030,36 eurokoa izango da gehienez, hau da, 120.202,42 euroren %15. Baina etxearen prezioa 240.404,84 eurokoa bada, kenkaria ez da 36.060,73 eurokoa izango (240.404,84 euro horien %15), 30.000,00 eurokoa bai-

zik, arauak muga hori jartzen duelako.

30.000,00 euroko saldo hori murriztu egin daiteke zergadunak aurreko etxe bat saltzeagatik ondare irabazi bat izan duenean. Zergadunak bi aukera ditu orduan: ondare irabazia zergapetzea edo, bestela, ondare irabaziari berrinbertsioaren salbuespena aplikatzea. Salbuespena aplikatzen badu, salbuespena ondare irabaziaren %15 30.000,00 euroko saldotik edo zergadunak une horretan duen saldo txikiagotik kenduko du.

Zergadunak inbertsio kontzeptuagatik kenkariak aplikatu ahala, 30.000,00 euroko zenbatekoa gutxituz joango da apurka-apurka zerora iritsi arte, hala badagokio.

Zergadunak ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik zergaldi jarraituetan egin dituen kenkariaren baturak zein muga duen kalkulatzeko, 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen kontzeptu horregatik egindako kenkariak ez dira kontuan hartzen.

ERNE: Ohiko etxebizitza 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi bada, 30.000,00 euroko zifra hori, inbertsio kontzeptuagatik zergaldi jarraituetan egindako kenkariaren baturari dagokiona, ez da aldatzen eta 27.045,54 eurokoa izaten jarraitzen du.

A adibidea

Demagun 2005. urtean 240.404,84 euroko etxea erosi duzula. Horretarako, aurreko etxea saldu duzu 12.020,24 euroko ondare irabazia lortuz. Berrinbertsioaren salbuespena aplikatzen duzu.

Ohiko etxebizitza erosteagatik egin dezakezun kenkaria hau izango da:

240.404,84 €-ren %15, 30.000,00 € -ko mugarekin	30.000,00 €
12.020,24 €-ren %15	-1.803,04 €
Hurrengo ekitaldietan gehienez egin daitezkeen kenkariak	28.196,96 €

B adibidea

Demagun 2005. urtean 120.202,42 euroko etxea erosi duzula. Horretarako, aurreko etxea saldu duzu 12.020,24 euroko ondare irabazia lortuz. Berrinbertsioaren salbuespena aplikatzen duzu.

Ohiko etxebizitza erosteagatik egin dezakezun kenkaria hau izango da:

120.202,42 €-ren %15, 30.000,00 € -ko mugarekin	18.030,36 €
12.020,24 €-ren %15	-1.803,04 €
Hurrengo ekitaldietan gehienez egin daitezkeen kenkariak	16.227,32 €

b) Ohiko etxebizitza elkarrekin erosten dutenek etxebizitzan inbertitzeagatik gehienez egin dezaketan kenkaria.

Ondasun higiezinari ezartzen zaion mugari dagokionez, hauxe esan behar da: ohiko etxebizitza 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera erosten bada eta erosleak pertsona bat baino gehiago badira, 30.000,00 euroko muga pertsona horien multzoari aplikatzen zaiola; beraz, inbertsio kontzeptuagatik jabe bakoitzak egin dituen kenkariaren baturak ezingo du aipatu zi-

fra gaudituz. Hau da, etxea bi pertsonak erosten badute, gehiezeko kenkaria 30.000,00 eurokoa izango da, ez kenkari pertsonalen batura (60.000,00 euro).

Zergadunak inbertsio kontzeptuagatik kenkariak aplikatu ahal, 30.000,00 euroko zenbatekoa gutxituz joango da apurka-apurka zerora iritsi arte, hala badagokio. Gauza bera gertatzen da, halaber, etxea pertsona batzuen artean erosten denean.

Abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzekoak, 68. artikuluan garatzen du kasu hauetan jarraitu behar den prozedura.

ERNE: ohiko etxebizitza 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi bada, 30.000,00 euroko zifra hori, inbertsio kontzeptuagatik zergaldi jarraituetan egindako kenkari baturari dagokiona, ez da aldatzen eta 27.045,54 eurokoa izaten jarraitzen du.

c) Zergadun bakoitzak interesak direla-eta gehiezeko egin dezakeen kenkaria.

Besteren kapitalak erabiltzeagatik ordaintzen diren interesek %20ko kenkaria izango dute, baldin eta inbertsioaren kenkarirako eskubidea ematen duten kopuruak badira. Beraz, ezinbestekoa da interesak sortu dituen mailegua eta kenkarirako eskubidea eman dezakeen zenbatekoa beti elkar lotuta egotea. Horretarako, etxea erosten den unean hainbanaketa bat egingo da kendu behar den portzentajea ezartzeko. Portzentaje hori finkoa eta iraunkorra izango da hurrengo zergaldietan, non eta berrinbertsioaren salbuespena aplikatzeagatik edo bestelako zirkunstantzia bereziak egoteagatik, aldatu behar ez den. Adibidez: 2005eko ekitaldian eta hurrengoetan kenkarirako eskubidea eman dezakeen zenbatekoa 200.000,00 eurokoa bada, zergadunak 200.000,00 euroko mailegu bati dagozkion interesengatik egin ahal izango du kenkaria.

ERNE: ohiko etxebizitza 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi bada, kenkarirako eskubidea eman dezakeen gehiezeko zenbatekoak 180.303,63 eurokoa jarraitzen du izaten.

Zer gertatzen da etxea erosteko maileguak kreditu fiskalaren oinarria gaintzen duenean (etxearen kostuak 200.000,00 euroko muga gaintzen duenean)? Kasu horretan hainbanaketa bat egin beharko da.

Adibideak

Lehen azaldutakoa argitzeko lau adibidez baliatuko gara. Denetan egoera bera dago: 2005. urtean etxe bat erosi duzu eta mailegu bat eskatu behar izan duzu horretarako. Alabaina, adibide bakoitzean etxearen prezioa eta maileguaren zenbatekoa aldatzen dira:

A adibidea

Eman dezagun 2005. urtean 200.000,00 euroko etxea erosi duzula kopuru bereko mailegu bat eskatu ondoren. Maileguaren portzentaje kengarria honako hau izango da:

Etxearen zenbatekoa	200.000,00 €
Maileguaren zenbatekoa	200.000,00 €
Interesen portzentaje kengarria	%100

B adibidea

Eman dezagun 2005. urtean 200.000,00 euroko etxea erosi duzula 120.202,42 euroko mailegua eskatu ondoren. Maileguaren portzentaje kengarria honako hau izango da:

Etxearen zenbatekoa	200.000,00 €
Maileguaren zenbatekoa	120.202,42 €
Interesen portzentaje kengarria	%100

C adibidea

Eman dezagun 2005. urtean 300.506,05 euroko etxea erosi duzula 240.404,84 euroko mailegua eskatu ondoren. Maileguaren portzentaje kengarria honako hau izango da:

Etxearen zenbatekoa	300.506,05 €
Etxebizitza inbertitzeagatik egiten den kenkariaren oinarria	200.000,00 €
Maileguaren zenbatekoa	240.404,84 €
Maileguaren portzentaje kengarria (200.000,00 €/240.404,84 €)	%83,19

D adibidea

Eman dezagun 2005. urtean 270.455,44 euroko etxea erosi duzula 240.404,84 euroko mailegua eskatu ondoren. Etxebizitza kontuan 30.050,61 euro sartu dituzu, eta kenkarirako eskubidea eman dizute inbertsio kontzeptuagatik. Maileguaren portzentaje kengarria honako hau izango da:

Etxearen zenbatekoa	270.455,44 €
Gehiezeko kreditu fiskala ohiko etxebizitza erosteagatik	200.000,00 €
Kenkaria sortu duten zenbatekoak (etxebizitza kontua)	30.050,61 €
Etxebizitza inbertitzeagatik egiten den kenkariaren oinarria (200.000,00 € - 30.050,61 €)	169.949,39 €
Maileguaren zenbatekoa	240.404,84 €
Maileguaren portzentaje kengarria (169.949,39 €/240.404,84 €)	%70,69

d) Ohiko etxebizitza elkarrekin erosten dutenek interesak direla-eta gehiezeko egin dezaketenen kenkaria.

Kasu hauetan ere esan behar da etxea pertsona batek baino gehiagok erosten badute, interes kengarriak sortzen dituen kapitalaren muga inbertsio kontzeptuagatik kenkaria egiteko kontuan hartzen den berbera izango dela. Honi dagokionez, 30.000,00 euroko saldoari egiten zaizkion murrizpenek zenbateko garrantzia duten errepikatzea komeni da, interesen kenkariaren muga automatikoki eragiten dutelako. Izan ere, zergadun batek etxebizitza inbertsioaren saldoa murrizten bada konturako entregak egin dituelako edo ohiko etxebizitza eskualdatzean lortu-

tako ondare irabazia salbuetsi nahi duelako, interesen kenkariak duen gehienezko muga automatikoki murriztuko zaio.

ERNE: ohiko etxebizitza 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi bada, 30.000,00 euroko zifra hori, inbertsio kontzeptuagatik zergaldi jarraituetan egindako kenkariaren baturari dagokiona, ez da aldatzen eta 27.045,54 eurokoa izaten jarraitzen du.

e) Inbertsio gehi interesengatik egin daitezkeen kenkariaren muga globala

Inbertsio eta interesengatik kenkarirako eskubidea ematen duten zenbatekoen baturak ezin du oinarri ezargarriaren %60 gainditu. Honako kontzeptu hauek murriztuko zaizkio beti oinarri ezargarriari:

- Ezkontidearen alde edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-lagunaren alde emandako pentsio konpentsagarriak, eta urteko mantenurako ordainketak, zergadunaren seme-alaben alde finkatutakoak izan ezik, biak ere erabaki judizialen ondorioz ordainduak.
- Mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpenak.

ERNE: zergadunak %60 baino gehiago inbertitu badu, errege-la bat ezarri behar da nola operatzen den adierazteko, kontuan izanik, beti, zenbateko batzuek %15 edo %25eko kenkaria dutela (inbertsioa) eta beste batzuek %20 edo %30ekoa (interesak). Zentzu honetan, Errenta Zergaren foru arauak dio lehendabizi inbertsioari dagokion kenkaria aplikatu behar dela eta gero finantzazioarena.

Adibidea

Eman dezagun zure oinarri ezargarria 27.646,56 eurokoa dela. Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitate bati 3.005,06 euroko ekarpena egin diozu. Eskatua duzun maileguagatik 10.818,22 euro amortizatu dituzu urtean, eta interesengatik 5.300,93 euro ordaindu dituzu.

Kenkarirako eskubidea ematen duten zenbatekoak hauek dira:

$$10.818,22 \text{ €} + 5.300,93 \text{ €} = 16.119,15 \text{ €}$$

Kenkariaren oinarriak duen gehienezko muga hau da:

Oinarri ezargarria	27.646,56 €
BGA Eri egindako ekarpenaren murrizpena	-3.005,06 €
Etxebizitza erosteagatik kenkariaren oinarriak duen muga: (27.646,56 € - 3.005,06 €)ren %60	14.784,90 €

Gehienezko muga gainditzen denez, honako kenkari hauek egingo dira:

Inbertsioa	$10.818,22 \text{ €} \times 0,15$	1.622,73 €
Finantzazioa	$(14.784,90 \text{ €} - 10.818,22 \text{ €}) \times 0,2$	793,34 €
	Etxebizitza inbertsioaren kenkaria, guztira	2.416,07 €

f) Ondare gehikuntzari ezartzen zaion muga

Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kenkaria egiteko, behar-beharrezkoa da zergadunak zergaldiaren amaieran duen ondarearen zenbatekoa zergaldiaren hasieran egiaztatutakoa baino handiagoa izatea. Diferentzia horrek ohiko etxebizitzan inbertitu diren eta kontzeptu horregatik kenkaridunak izan diren zenbatekoen adinakoa izan beharko du gutxienez. Ondorio horietarako, zergaldiaren amaieran zergadunaren ondarean jarraitzen duten ondasunen balioak zergaldian zehar izandako aldaketak ez dira kontuan hartuko.

g) Ahalegin inbertsioaren muga ohiko beste etxebizitza bat erosten denean.

Bigarren edo hirugarren ohiko etxebizitza bat erosten denean, kenkaria aplikatu ahal izateko ezinbestekoa izango da inbertitutako zenbatekoa ohiko etxebizitzaren kenkarirako eskubidea ematen duen zenbatekoa baino handiagoa izatea. Halakorik egonez gero, soberakinaren zenbatekoak emango du hurrengo zergaldietan kenkaria egiteko eskubidea. Adibidez: eman dezagun 120.202,42 euroko ohiko etxebizitza bat erosi duzula eta 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera 18.303,36 euroko kenkaria aplikatu dela etxe horregatik (120.202,42 euroren %15). 2005. urtean ohiko beste etxebizitza bat erosten baduzu (200.000,00 eurokoa), ohiko etxebizitza berriagatik egin dezakezun kenkaria soberakinari lotuko zaio, hau da, 79.797,58 euroko diferentziari (200.000,00 € - 120.202,42 €). Kontuan eduki behar da kenkariaren gehienezko muga 180.303,63 eurokoa dela. Bigarren etxebizitzagatik 200.000,00 euro ordaintzen badituzu, ezingo duzu inolako kenkaririk egin, inbertitutako zenbatekoa ez baita lehen etxebizitzagatik egindako kenkariaren zenbatekoa baino handiagoa.

ERNE: ohiko etxebizitza 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi bada, kenkarirako eskubidea eman dezakeen gehienezko zenbatekoak 180.303,63 eurokoa jarraitzen du izaten.

h) Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik (inbertsioa gehi interesak) eta mezenasgo jarduerengatik egin daitezkeen kenkariaren muga globala.

Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik eta mezenasgo jarduerengatik kenkarirako eskubidea ematen duten zenbatekoen baturak ezin du oinarri ezargarriaren %60 gainditu. Honako kontzeptu hauek murriztuko zaizkio beti oinarri ezargarriari:

- Ezkontidearen alde edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-lagunaren alde emandako pentsio konpentsagarriak, eta urteko mantenurako ordainketak, zergadunaren seme-alaben alde finkatutakoak izan ezik, biak ere erabaki judizialen ondorioz ordainduak.
- Mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpenak.

LABURPENA: kenkariaren oinarrietarako mugak	
Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik	%60 *
Mezenasgo jarduerengatik	%30 *
Aurreko hiruak batera hartuta	%60 *

* Portzentajea zergadunaren oinarri ezargarriari aplikatzen zaio, beti ere behar diren murrizpenekin gutxitua izan ondoren. Honako murrizpenak egon daitezke: ezkontidearen edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-lagunaren alde emandako pentsio konpentsagarriak eta urteko mantenurako ordainketak, seme-alaben alde finkatutakoak izan ezik, biak ere erabaki judizial bidez ordainduak, eta mutualitateei aurreikuspen plan ase-

guratuei, pentsio planei eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpenak.

Adibidea

Eman dezagun 37 urte dituzula eta zure oinarri ezargarria 27.646,56 eurokoa dela. Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitate bati 3.005,06 euroko ekarpena egin diozu. Mailegu horretatik 9.616,19 euro amortizatu dituzu urtean, eta interesengatik 4.699,91 euro ordaindu dituzu. Gainera, Gurutze Gorriari 601,01 euroko dohaintza egin diozu.

Kenkarirako eskubidea ematen duten zenbatekoak hauek dira:

$$9.616,19 \text{ €} + 4.699,91 \text{ €} + 601,01 \text{ €} = 14.917,11 \text{ €}$$

Kenkariaren oinarriak duen gehieneko muga hau da:

Oinarri ezargarria	27.646,56 €
BGAERI egindako ekarpenaren murrizpena	-3.005,06 €
Etxebizitza erosteagatik kenkariaren oinarriak duen muga: 60% (27.646,56 € - 3.005,06 €)	14.784,90 €

Gehieneko muga gainditzen denez, foru arauak ez du esaten bietatik zein kenkari aplikatu behar den lehenago, eta zergadunak aukeratu beharko du. Hori bai, etxebizitzan egindako inbertsioaren kenkariari dagokionez, aurrenik inbertsio kontzeptuarena aplikatzen da.

Dohaintzak	601,01 € x 0,30	180,30 €
Inbertsioa	9.616,19 € x 0,15	1.442,43 €
Finantzaketa	[14.784,90 € - (601,01 € + 9.616,19 €)] x 0,2	913,54 €

Zer gertatzen da familia unitateko kideren batek etxea erosten duenean?

Ohiko etxebizitza familia unitateko kideren batek erosten badu, dela indibidualki dela beste pertsona batzuekin batera, ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kenkaria egiteko aplikatuko den prozedura erosketara pertsona batzuen artean egiten denerako ezarritakoa izango da, eta familia unitateko kide guztien etxebizitza kredituan erabilitako zenbatekoak hartuko dira kontuan. Horrek esan nahi familia unitate bateko ezkontideetako batek 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera kenkaria aplikatu badu 200.000,00 euroko oinarriagatik, bere ezkontideak ohiko beste etxebizitza bat 2005. urtean erosten duenean ezingo duela etxe berriagatik inolako kenkaririk egin, kreditu fiskala beste ezkontideak agortu duelako.

ERNE: ohiko etxebizitza 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi bada, kenkarirako eskubidea eman dezakeen gehieneko zenbatekoak 180.303,63 eurokoa jarraitzen du izaten.

Zer gertatzen da pertsona batek mailegu bidez erosten badu ohiko etxebizitza eta, erosketara hori irabazpidezko sozietatearen kontura ordaintzen badu?

Pertsona batek ohiko etxebizitza bat erosten badu eta erosketara hori irabazpidezko sozietatearen kontura ordaintzen badu, ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik zilegi den kenkaria egiteko aplikatu behar diren arauak erosketara pertsona batzuen artean egiten denerako ezarritakoa izango dira.

12.3.3.2 Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kenkaria egiteko aplikatzen diren erregela bereziak, 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen erosketak edo birgaitetak kenkaria izan duenean.

Zergadunak ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik zergaldi jarraituetan egin dituen kenkariaren baturak zein muga duen kalkulatzeko, 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen kontzeptu horrengatik egindako kenkariak ez dira kontuan hartuko.

Ohiko etxebizitza 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera erosi bada, zergadunak inbertsio kontzeptuagatik zergaldi jarraituetan egiten dituen kenkariaren baturak ezin du 30.000,00 euroko zifra gainditu. Zifra hori, dena den, berrinbertsioagatik salbuesten den ondare irabaziari 100eko 15 aplikatu ondoren ateratzen den emaitzarekin gutxituko da, hala badagokio. Ohiko etxebizitza 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi bada, aurreko zifra hori, inbertsio kontzeptuagatik zergaldi jarraituetan egindako kenkariaren baturari dagokiona, ez da aldatzen eta 27.045,54 eurokoa izaten jarraituko du.

12.3.3.3 Ohiko etxebizitza 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi duten zergadunei aplikagarri zaien konpentsazio erregimena etxebizitzan inbertitzeagatik kenkaria egiteko eskubidea dutenean.

Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik aplikatzen diren kenkariaren erregulazio berriaren ondorioz, honako hau gerta liteke: ohiko etxebizitza 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi edo birgaitu duen zergadun batek inbertsio horri dagokion kenkarirako eskubidea izatea, eta, hala ere, kenkari horretarako orain aplikatzen den erregimenak Errenta Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauan ezarritakoa baino onura gutxiago ekartzea. Zentzu honetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak dio zergadun horri konpentsatu egingo zaiola hiru baldintza hauek betetzen direnean:

- Ohiko etxebizitza 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi edo birgaitzea.
- Ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeagatik kenkaria egiteko eskubidea edukitzea.
- Indarrean dagoen erregimenak aurrekoak baino onura gutxiago ekartzea.

Kompentsazio erregimenean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren likidazioa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak dioena, berau garatzen duten foru dekretuetan xedatutakoa eta ondorengo erregelak kontuan hartuz egingo da:

a) Kapital higiezinaren etekina:

- Ohiko etxebizitzaren balio katastralaren %0,3 kalkulatu da. Zergaren sortzapen egunean ohiko etxebizitzak ez badu balio katastralik edo interesatuari jakinarazi ez bazaio, Ondarearen gaineko Zergaren ondorioetarako konputatu behar den balioaren erdiari %1,10 aplikatuko zaio.

- Aurreko emaitzari ohiko etxebizitzagatik Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan ordaindu den kuota eta ekitaldian zehar maileguagatik ordaindu diren interesak kenduko zaizkio. Interes horiek kendu egingo dira baldin eta kopuruek ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik egin daitekeen kenkarirako eskubidea ematen badute, bestela ez¹¹⁹. Banaka tributatzen bada, interes horien muga 4.808,10 eurokoa izango da, eta batera tributatuz gero, berriz, 6.010,12 eurokoa.

b) Kuotako kenkaria ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik:

Zergadunak konpentsazio erregimena aukeratzen badu, inbertsio kontzeptuagatik bakarrik egingo da kuotan kenkaria (amor-

¹¹⁹ Ikus kapitulu honen barruan ageri den 12.3.2.1 apartatua, ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik egiten den kenkariaren arau orokorreko buruzkoa.

tizazioaren %15koa izango da). %25eko kenkaria, hau da, zergaduna familia ugariaren titularrak edo 35 urtetik beherakoa denean eta gainerako beharkizunak betetzen direnean aplikagarri dena, ezingo da kasu honetan aplikatu. Kuotan ezingo da inolako kenkaririk egin finantzazio kontzeptuagatik (interesen %20 edo %30).

c) Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik gehienez egin daitekeen kenkaria:

Zergadunak konpentsazio erregimena aukeratzen badu, ondorengo kenkariaren oinarriak, hau da, ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik (amortizazioa) eta mezenasgo jarduerengatik egiten diren kenkariaren oinarriak, ezin du oinarri ezargarriaren %30 gainditu. Kontuan eduki behar da oinarri ezargarriari honako kontzeptuak murriztuko zaizkiola beti:

- Ezkontidearen alde edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izateko bikote-lagunaren alde emandako pentsio konpentsagarriak, eta urteko mantenurako ordainketak, zergadunaren seme-alaben alde finkatutakoak izan ezik, biak ere erabaki judizialen ondorioz ordainduak.
- Mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpenak.

12.3.3.4 Arau berezia ezkontza baliogabetu, senar-emazteak banandu edo dibortziatu edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izateko bikotea desegiten denean

Ezkontza baliogabetu, senar-emazteak banandu edo dibortziatu edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izateko bikotea desegiten bada, eta epaileen aginduz edo judizialki onartutako hitzarmenean hala erabakitzeagatik, zergadunetako batek bakarrik ordaindu behar izan badu etxe familiarraren inbertsioa edo, hala badagokio, finantzazioa, zergadun horrek egin ahal izango du bere aitortenean ohiko etxebizitzaren inbertsioari dagokion kenkaria. Kasu horretan egiten diren kenkariak zergadun horren etxebizitza kreditua murriztuko dute. Era berean, Zergaren foru arauan eta bere erregelamenduzko garapenean jasotzen diren gainerako baldintza eta mugak aplikatuko dira. Hala ere, ordaintzeko obligazioa bi ezkontideei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzaren aitortenean egingo da bakoitzari dagokion proportzioan.

12.4 Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak

Apartatu honetan bi kenkari hauek arautzen dira:

- Kenkaria inbertsio eta bestelako jarduerengatik.
- Kenkaria langileek enpresan parte hartzeagatik.
- Kenkaria jarduera ekonomiko baten hasieran inbertitzeko kreditu entitateetan egindako gordailuengatik.

12.4.1 Kenkaria inbertsio eta bestelako jarduerengatik.

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek zuzeneko zenbatespenaren erregimena erabiltzen badute beren etekinak kalkulatzeko, Sozietateen gaineko Zergaren araudiak aktibo finko material berrietan inbertsioak hobartzeko eta zenbait jarduera burutzeko jasotzen dituen kenkariak aplikatu ahal izango dituzte, beti ere araudi horretan ezartzen diren portzentaje eta muga berdinekin.

Hona hemen kenkariak:

- Kenkaria aktibo finko material berrietan inbertitzeagatik.

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak sustatzeko kenkaria
- Kenkaria kultur ondarea babestu eta zabaltzeko jarduerengatik eta zinemagintzan nahiz liburugintzan inbertitzeagatik.
- Kenkaria ikerketa eta garapen jarduerak egiteagatik.
- Kenkariak ingurugiroa artatu eta hobetzeko jarduerengatik.
- Kenkaria esportazio jarduerengatik.
- Kenkaria lanbide heziketako gastuengatik.
- Kenkaria enpresariaren kontribuzioengatik, enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa jarduten duten enpleguiko pentsio planei, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egiten zaizkienean.
- Kenkaria haur hezkuntzako lehen zikloa emateko lokaletan egindako inbertsio eta gastuengatik.
- Kenkaria enplegua sortzeagatik.
- Kenkaria energia berriztagarrien iturriak aprobetxatzeko inbertsioengatik.

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek zenbatespen objektiboaren erregimena erabiliz kalkulatzeko dutenean beren etekina, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak sustatzeko kenkariak aplikatuko ahal izango dituzte, hain zuzen ere, Sozietateen gaineko Zergaren araudian jasotakoak. Horiek aplikatzeko era eta mugak araudi horretan ezarritakoak izango dira.

Azter ditzagun banan-banan.

12.4.1.1 Kenkaria aktibo finko material berrietan inbertitzeagatik (makinak, ibilgailuak...)

Zenbatekoa da kenkaria?

Entitatearen jarduera enpresarialari atxikita dauden aktibo finko material berrietan inbertitzeagatik **%10eko** kenkaria egiten da. Lurra ez dira aktibo horien artean sartzen.

ERNE aktiboa berria dela esaten da aldeztatik beste pertsona edo entitate batek erabili ez duenean. Hau da, ez da berria izango aurretik beste pertsona edo entitate baten ibilgutuan egon bada edo Kontabilitate Plan Orokorren arabera hor sartuta egon behar bazuen, nahiz eta aktibo hori inoiz martxan jarri ez.

%10 aplikagarria izango da, orobat, honako inbertsioak direnean:

- Aplikazio informatikoak.
- Eskualdatuak izateko birgaitutako industri pabilioiak erostea, birgaituak izateko industri pabilioiak erostea, edo jarduera ekonomikoaren aktiboan dagoeneko sartuta dauden industri pabilioiak birgaitzea.
- Industri pabilioitzat hartzen dira udalek industrial moduan kalifikatutako zonetan daudenak, pabilioi horietan egiten den jarduera edozein dela ere. Birgaikuntza lanak, berriz, izango dira egitura, fatxada edo estalkiak kontsolidatuz eta tratatuz pabilioiak berreraikitzeke egiten direnak, baldin eta birgaikuntzaren kostu osoa erosketaren prezioaren %25etik gorakoa bada, birgaituak izateko erostekotan, edo ondasunari kontabilizatutako balio garbiaren %25etik gorakoa, dagoeneko enpresaren aktiboan sartuta dagoen pabilioi bat birgaitzekotan.
- Errentamendu finantzarioko erregimenean egindako inbertsioak, eraikinak izan ezik.

Baldintzak

- Inbertsioak ibilgetuaren barruan kontabilizatu behar dira.
- Aktiboak amortizatzeko gutxieneko epeak 5 urtekoa izan behar du, ekipo informatikoetan izan ezik.
- Inbertsioa jasotzen duten elementuek ez dute Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Berezian tributatu behar, dela hari lotuta ez daudelako, dela salbuetsita daudelako.
- Inbertsioa jasotzen duten aktibo guztien zenbatekoak 60.000,00 eurotik gorakoa izan behar du ekitaldi bakoitzean eta, gainera, honako baldintza hauek bete:
 - Programa informatikoen eta errentamendu finantzarioko erregimenean erositako ondasunen aktibo finko material nahiz inmaterialean lehendik dauden kontabilitate balioen zenbatekoak batuz ateratzen den kopuruaren %10 gainditzea, amortizazioak kendu ondoren.
 - Izaera bereko aktibo finkoaren kontabilitate balioaren zenbateko osoaren %15 gainditzea, amortizazioak kendu gabe.

Nolanahi dela ere, baldintza horietako edozein betetzen duten enpresek inbertsioaren helburu diren aktiboen multzoan 60.000,00 euroko zenbatekoa gainditzen ez badute, kenkari hau egin dezakete baldin eta:

- Ekitaldian gutxienez lan kontratu finko bat egiten badute, plantilaren batez bestekoa gehituz.
- Kontratu horrek formalizazioaren ondorengo bi urteetan irauten badu.

Erregelak

Aurreko baldintzez gain, honako erregelak hartuko dira kontuan:

- Kenkariaren oinarria hitzartutako kontraprestazioa izango da, baina kontzeptu hauek kanpoan utzita:
 - Interesak.
 - Lurzoruaren balioa.
 - Zeharkako zergak eta errekaruak.
 - Ondasunak erosteagatik jaso ditzaketen dirulaguntzen %67,5.
- Kenkariaren oinarriak ezingo du gainditu subjektu independenteek merkatuko ohiko baldintzetan hitzartuko zuten prezioa.
- Ez da kenkaria egiteko eskubiderik izango inbertsio berberei beste zerga onura batzuk aplikatzen zaizkienean, honako hauek izan ezik:
 - Amortizazio askatasuna.
 - Amortizazio azkartua.
- Hurrengo bost urteetan edo beren erabilgarritasun aldian –bost urtetik beherako bada- zergadunak saltzen baditu, errentan eman edo lagatzen baditu inbertsioa izan duten ondasunak, bere unean ordaindu ez zituen kuotak eta berandutza interesak ordaintzeko obligazioa izango du.

12.4.1.2 Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak sustatzeko kenkaria.

Zenbatekoa da kenkaria?

Zergaldiko inbertsio eta gastuen 100eko 10eko kenkaria egiteko eskubidea ematen dute, haien xedea internet bidezko transakzio komertzialei buruzko informazioa eskuratu eta erabiltzeko gaitasuna nahiz jardueraren barne prozesuak informazio eta komunikazioaren

teknologiak baliatuz hobetzea denean. Honako teknologiak dira hain zuzen:

a) Interneteko sarbidea, eta haren baitan:

- 1.- Ekipo eta terminalak eskuratzea, “softwarea” eta periferikoak barne, internetekin lotzeko eta posta elektronikoaren aukerez baliatuzeko.
- 2.- Komunikazio ekipo espezifikoak eskuratzea, ordenagailuen barne sareak internetekin lotzeko.
- 3.- Sistema horiek instalatu eta ezartzea.
- 4.- Enpresako langileak horien erabileran trebatzea.

b) Interneteko presentzia, eta haren baitan:

- 1.- Ekipo eta terminalak eskuratzea, “softwarea” eta periferikoak barne, web orriak eta atariak garatu eta argitaratzeko.
- 2.- Lanak egitea, barruko giza baliabideak erabilia nahiz kanpoan kontratatuta, web orriak eta atariak diseinatu eta garatzeko.
- 3.- Sistema horiek instalatu eta ezartzea.
- 4.- Enpresako langileak horien erabileran trebatzea.

c) Merkataritza elektronikoa, eta haren baitan:

- 1.- Ekipo eta terminalak eskuratzea, “softwarea” eta periferikoak barne, merkataritza elektronikoa internet bidez ezartzeko, transakzioen segurtasun eta konfidentziazitasun baldintza egokiak ziurtatuz.
 - 2.- Ekipo eta terminalak eskuratzea, “softwarea” eta periferikoak barne, merkataritza elektronikoa sare itxien bidez ezartzeko (enpresa, bezero eta hornitzaile taldeez osatutako sareak).
 - 3.- Sistema horiek instalatu eta ezartzea.
 - 4.- Enpresako langileak horien erabileran trebatzea.
- d) Informazio eta komunikazioaren teknologiak prozesu enpresarialetan sartzea, eta honen baitan:
- 1.- Berariazko ekipoak eta “software” paketeak eskuratzea ordenagailuak elkarri lotzeko, ahotsa eta datuak bateratzeko eta intraneteko konfigurazioak sortzeko.
 - 2.- Software paketeak eskuratzea, kudeaketa, diseinu eta produkzio prozesu espezifikoetan aplikatzeko.
 - 3.- Sistema horiek instalatu eta ezartzea.
 - 4.- Enpresako langileak horien erabileran trebatzea.”

Era berean, kuota osoan inbertsioen 100eko 10eko kenkaria egiteko eskubidea izango da, baldin eta errepide bidezko garraiorako ibilgailu industrial edo komertzialetan sartzen diren satelite bidezko nabigazio edo lokalizazio sistemak lotuta badaude. Beste aldetik, kuota osoan inbertsioen 100eko 10eko kenkaria egin ahal izango da, baldin eta lotuta badaude ezinduen sarbide plataformei edo gurpil auklari finkatzeko anklajei, bidaiarien errepide bidezko garraio publikorako ibilgailuetan sartuta.

Aurreko apartatuetan aipatutako kenkariak bateraezinez dira, inbertsio edo gastu berberetarako, 12.4.1. apartatu honetan jasotako beste kenkariarekin eta, bereziki, aktibo finko materialetan inbertitzeagatik egiten denarekin.

Kenkariaren oinarria

Kenkariaren oinarria kontzeptu honengatik egindako gastuek osatuko dute. Dena den, gastu horiei aipaturiko inbertsio eta gastuak egiteko jaso diren dirulaguntzen %67,5 kendu behar zaie.

12.4.1.3 Kenkaria kultur ondarea babestu eta zabaltzeko jarduerengatik eta zinemagintzan nahiz liburugintzan inbertitzeagatik.

Zenbatekoa da kenkaria?

- Inbertsioen edo gastuen %15, inbertsio edo gastu horien helburua honako hau bada:
 - Euskal Kultur Ondareko edo Espainiako nahiz edozein autonomia erkidegotako Ondare Historikoko ondasunak lurralde espainiarretik kanpo erostea lurralde horretan sartzeko, baldin eta ondasun horiek gutxienez hiru urte irauten badute Espainiako lurraldean eta titularraren ondarearen barruan.
- Euskal Kultur Ondarearen parte diren ondasunak erosten direnean, kenkariaren oinarria Eusko Jaurlaritzak emandako balioa izango da; erosten diren ondasunak Espainiako Ondare Historikokoaren parte direnean, kenkariaren oinarria Kalifikazio, Balorazio eta Esportazio Batzordeak emandako balioa izango da; eta erositako ondasunak beste autonomia erkidego bateko Ondare Historikokoaren parte direnean, kenkariaren oinarria organo eskudunek emandako balioa izango da. Organo horiek ez badute inolako baloraziorik egin, balorazioa Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo du.
- Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean, Espainiako Ondare Historikoa buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean eta autonomia erkidegotako araudietan jasotako kultur onurako ondasunak ardatzea, konpontzea, zaharberritzea, hedatzea eta erakustea.
- Erakinak birgaitzea, horien teilatu eta fatxadak mantendu eta konpontzea eta azpiegiturak hobetzea, horiek Espainian daudenean UNESCOk Mundu Ondarekotzat izendatutako hirien, multzo arkitektonikoen, multzo arkeologikoen, multzo naturalen, paisaia multzoen edo ondasunen inguru babestuen barruan.
- Produktzio espainiarreko zine luzemetraietan edo fikzio, animazio edo dokumental moduko ikus-entzunezkoetan egindako inbertsioek %20ko kenkaria dute produktorearentzat, beti ere serieko produktzio industrialaren aurretik euskarri fisiko bat egiteko aukera ematen badute. Kenkariaren oinarria produktzioaren kostua izango da, koproduttore finantzarioak finantzatutako zatia kenduta.

Produktzio espainiarreko zine luzemetrai batean parte hartzen duen koproduttore finantzarioak %5eko kenkaria egingo du berak finantzatutako inbertsioagatik, eta inbertsioak zergaldian ekarri dion errentaren %5 izango da muga. Koproduttore finantzarioa izango da aurreko paragrafoan adierazitako pelikulen produktzioan esku hartu eta produktzioaren kostu osoaren %10etik %25era bitarteko diru baliabideak bakarrik jartzen dituen, pelikula horien ustiapenak dakartzan diru sarreretan parte hartzeko eskubi-dearen truke.

Kenkari hauek filmaren produktzioa amaitzen den zergalditik aurrera egingo dira. Zergaldi horretan egin ez diren kenkariak hurrengo bost urte jarraituetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan aplikatu ahal izango dira. Horrelakoetan, apartatu honetan aipatu den %5eko muga kenkaria egiten den zergaldian koproduktzio dela-eta lortzen den errentaren gainean kalkulatu da.

- Liburugintzan inbertitzeak %5eko kenkaria izango du, serieko produktzio industrialaren aurretik euskarri fisiko bat egiteko aukera ematen badute.

Kenkariaren oinarria

Hiru kasu hauetan, egindako inbertsioei jarduera horiek sustatzeko jasotako dirulaguntzen %67,5 kenduko zaie.

12.4.1.4 Kenkaria ikerketa zientifikoko eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik.

Ikerketa zientifikoa:

Zenbatekoa da kenkaria?

Ikerketa eta garapen jarduerengatik zergaldian izandako gastuek %30eko kenkaria izango dute. Gainera, ekitaldian izandako gastuak aurreko bi urteetako batez bestekoa baino handiagoak badira, %30a batez besteko horretaraino aplikatuko da, eta batez besteko horren gainean dagoen soberakinari %50eko kenkari osagarria egin ahal izango zaio.

Gainera, zergaldian izandako gastuek beste %20eko kenkaria izango dute honako gastu hauek direnean:

- a) Entitateko langileria gastuak, ikerketa eta garapen jardueri bakarrik lotuta dauden ikerlari kualifikatuei dagozkien.
- b) Ikerketa eta garapen proiektuen gastuak, baldin eta ondoko hauekin kontratatuta badaude: unibertsitateekin, ikerkuntzako organismo publikoekin edo berrikuntza eta teknologia zentroekin, Berrikuntza eta teknologia zentroi buruzko abenduaren 20ko 2609/1996 Errege Dekretuaren arabera horrela aitortu eta erregistratuta daudenean, bai eta Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 29ko 96/1997 Dekretuak araututako Euskal Teknologia Sarean sartutako entitateekin ere.

Ibilgetu material eta inmaterialaren elementuetan egindako inbertsioen %10, ondasun higiezinak eta lurrak kanpoan utzita, baldintza hauek betetzen badira:

- Elementuek ikerketa eta garapen jardueri bakarrik egon behar dute atxikita.
- Inbertsioaren xede diren elementuek zergadunaren ondarean jarraitu behar dute, justifikatutako galerak daudenean izan ezik, harik eta ikerketa eta garapen jardueretan duten berariazko helburua betetzen den arte, non eta aplikatzen den amortizazio metodoagatik¹²⁰ beren erabilgarritasun aldia txikiagoa ez den.
- Ez da kenkaria egiteko eskubiderik izango inbertsio berei beste zerga onura batzuk aplikatzen zaizkienean, honako hauek izan ezik:
 - Amortizazio askatasuna.
 - Amortizazio azkartua.

Zer da ikerketa eta garapen jarduera?

- **Ikerketa:** azterketa original eta planifikatuak egitea ezagutza berriak aurkitzeko eta zientzia edo teknologia alorrak hobeto ulertzeko.
- **Garapena:** ikerketaren edo beste edozein ezagutza zientifikoren emaitzak aplikatzea material edo produktu berriak fabrikatzeko, prozesu edo produktzio sistema berriak diseinatzeko nahiz lehendik dauden material, produktu, prozesu edo sistemak teknologikoki hobetzeko. Jarduera horren barruan sartuko da ikerketaren emaitzak plano, eskema edo diseinu batean gauzatzea, merkaturatu ezin diren prototipoak sortzea eta hasierako erakusketarako proiektuak edo proiektu aitzindariak egitea, beti ere aplikazio industrialetarako edo merkataritzako ustiapenerako bihurtu edo erabili ezin badira.

¹²⁰ Ikus Sozietateen gaineko Zergaren araudian aurreikusitako amortizazio taula.

- Ikerketa eta garapen jarduera honen barruan sarturik dago, baita ere, produktu berriak plano, eskema edo diseinu batean gauzatzea, eta, orobat, merkaturatu ezin diren prototipoak nahiz hasierako erakusketarako proiektuak edo proiektu aitzindariak sortzea, baldin eta aplikazio industrialetarako edo merkataritza ustiapenerako bihurtu edo erabili ezin badira.
- Ikerketa eta garapen jardueratzat hartuko da “software” aurreratua sortzea, baldin eta horrek aurrerapen zientifikoa edo teknologiko nabarmena badakar, dela teorema eta algoritmo berriak garatuz dela sistema eragile eta lengoaia berriak sortuz, edota pertsona ezinduek informazioaren gizarteko zerbitzuetara iristeko egiten bada. “Softwareari” lotutako ohiko jarduerak hortik kanpo geratzen dira.

Berrikuntza teknologikoa

Aurreko apartatuan sartu ez diren berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteak kuota likidoan kenkaria egiteko eskubidea emango du ondorengo baldintzen barruan.

Zenbatekoa da kenkaria?

Zergaldian berrikuntza teknologikoko jarduerengatik egindako gastuek %15eko kenkaria izango dute, horien xedea ondorengo hau izan bada:

- a) Proiektuak, ondoko hauekin kontratatuta daudenean: unibertsitateekin, ikerkuntzako organismo publikoekin edo berrikuntza eta teknologia zentroekin, Berrikuntza eta teknologia zentroi buruzko abenduaren 20ko 2609/1996 Errege Dekretuaren arabera horrela aitortu eta erregistratuta daudenean, bai eta Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 29ko 96/1997 Dekretuan araututako Euskal Teknologia Sarean sartutako entitateekin ere.
- b) ISO 9000, ISO 14000, GMP edo horien gisako seriearen kalitatea ziurtatzeko arauak betetzeari buruzko ziurtagiria lortzea, arau horiek ezartzeko behar diren gastuak sartu gabe.

Zergaldian berrikuntza teknologikoko jarduerengatik egindako gastuek %10eko kenkaria izango dute, horien xedea ondorengo hau izan bada:

- a) Produkzio prozesuen diseinu industrial eta ingeniariaritzaren. Horien barruan sartuko da produktu bat fabrikatu, probatu, instalatu eta erabiltzeko behar diren elementu deskriptibo, zehaztapen tekniko eta funtzionamendu ezaugarriak definitzea helburu duten plano, marrazki eta euskarriak asmatu eta prestatzea.
- b) Teknologia aurreratua patente, baimen, “know-how” eta diseinu moduan eskuratzea. Zergadunarekin zer ikusia duten pertsona edo entitateei ordaindutako kopuruek ez dute kenkarirako eskubiderik emango. Kontzeptu honi dagokion oinarria ezin da milioi bat eurokoa baino handiagoa izan.

Zer da berrikuntza teknologikoa?

- Produktu edo produkzio prozesu berriak lortzeko edo jadanik daudenak teknologikoki nabarmen hobetzeko egiten den jarduerari esaten zaio horrela. Jarduera horren barruan sartuko da ikerketaren emaitzak plano, eskema edo diseinu batean gauzatzea, merkaturatu ezin diren prototipoak sortzea eta hasierako erakusketarako proiektuak edo proiektu aitzindariak egitea, beti ere aplikazio industrialetarako edo merkataritzako ustiapenerako bihurtu edo erabili ezin badira.
- Diagnostiko teknologikoko jarduerak ere haren barruan sartzen dira unibertsitateek, ikerkuntzako organismo publikoek edo berrikuntza eta teknologia zentroek (hala aitortu eta erregistratuta badaude) egiten dituztenean soluzio teknolo-

giko aurreratuek identifikatu, definitu eta orientatzeko asmoz, horien emaitzak zeinahi direla ere.

Zer ez da ikerketa eta garapen jarduera edo berrikuntza teknologikoa?

- Berrikuntza zientifikoa edo teknologikoa nabarmenik ez dakarten jarduerak, eta bereziki, honako hauek: produktu edo prozesuen kalitatea hobetzeko ohiko ahalaginak egitea, lehendik dagoen produktu bat edo produkzio prozesu bat bezero batek ezarritako beharrezkoetara egokitzea, aldizkako edo denboraldiko aldaketak egitea, eta lehendik dauden produktuetan antzeko beste batzuetatik bereizteko aldatuta estetikoa edo txikiak egitea.
- Produkzio industrialeko eta zerbitzu hornidurako jardueretan aritzea, edo ondasun eta zerbitzuen banaketan jardutea. Bereziki, ondoko hauek sartzen dira: jarduera produktiboa planifikatzea, produkzioa prestatu eta abian jartzea, lan tresnen doikuntza eta diseinu industrialarekin eta produkzio prozesuen ingeniariarekin zer ikusirik ez duten bestelako jarduerak barne hartuta; produkzioarako instalazio, makina, ekipoa eta sistemak sartu edo aldatzea; eten diren produkzio prozesuen arazo teknikoak konpontzea; kalitatea kontrolatu eta produktu eta prozesuak normalizatzea; merkaturako azterketak egin eta merkaturatzeko sare edo instalazioak ezartzea; eta, azkenik, jarduera horietan arituko diren langileak trebatu eta prestatzea.
- Mineral eta hidrokarburoen miaketa, zundaketa edo prospekzioa.

Zer hartzen da ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko gastutzat?

Zergadunak egiten dituenak, baldin eta:

- Ikerketa eta garapen jarduerari edo berrikuntza teknologikokoei zuzenean lotutako gastuak badira.
- Benetan jarduera hauek egiteko erabili badira.
- Proiektu indibidualizatuta agertzen badira.

Ikerketa eta garapen gastuak nahiz berrikuntza teknologikoko atzerrian burutzen diren jarduerari dagozkienean, kenkaridunak izango dira, baita ere, baldin eta:

- Ikerketa eta garapen edo berrikuntza teknologikoko jardueraren nagusia Espainian egiten bada.
- Gastuek inbertitutako zenbateko osoaren %25 gainditzen ez badute.

ERNE: ikerketa eta garapeneko nahiz berrikuntza teknologikoko gastutzat hartuko dira, halaber, zergadunak zuzenean edo beste entitate batzuekin batera ikerketa eta garapen jarduerak hirugarren batek Espainian egin ditzan ordaintzen dituen kopuruak.

Kenkariaren oinarria

Kenkariaren oinarria kontzeptu honengatik egindako gastuek osatuko dute. Dena den, gastu horiei jarduera hauek sustatzeko jaso diren eta sarrera moduan konputatu diren dirulaguntzen %67,5 kendu behar zaie.

12.4.1.5 Kenkariak ingurugiroa artatu eta hobetzeko jarduerengatik

Teknologia Garbien Euskal Zerrenda:

Zenbatekoa da kenkaria?

- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren Aginduak, Teknologia Garbien Euskal

Zerrenda onartzekoak, aipatzen dituen ekipoetan egindako inbertsioengatik **%30eko** kenkaria aplikatzen da.

Baldintzak

- Kenkarirako eskubidea eduki ahal izateko, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartzen duen Aginduak definitutako ekipo osoetan inbertitu behar da.
- Inbertsio horiek aktibo finko material berrietan egin behar dira, eta enpresaren jardueraren kutsagarritasuna murriztu eta zuzentzea izan beharko dute berezko helburu.
- Finantza errentamenduko erregimenean egindako inbertsioak kengarriak izango dira.
- Kenkaria subjektu pasiboak aplikatuko du, eta Zerga Administrazioak hala eskatzen badiu, ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailak emana, egindako inbertsioak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren Aginduak, Teknologia Garbien Euskal Sarea onartzekoak, aipatzen dituen ekipoetan burutu direla frogatzeko.
- Inbertsioa izan duten aktibo finkoek gutxienez bost urtez egon behar dute funtzionamenduan eta ingurumenaren artapen eta hobekuntzari lotuta, edo, bestela, beren erabilgarritasun aldi osoan berau epe hori baino laburragoa bada. Dena den, inbertsioaren xede diren aktibo finkoak epe laburragoan egon daitezke funtzionamenduan, baldin eta haien lekua kenkari hau aplikatzeko baldintzak betetzen dituzten beste batzuek hartzen badute.
- Zergadunak ezin dizkie aktibo horiek hirugarrenei saldu, errentan eman edo laga erabiliak izateko.
- Epe horretan zergadunak inbertsioaren xede diren ondasunak desafektatu, laga, errentan eman edo saltzen badiu, horrek berarekin ekarriko du kenkaria aplikatzean bere ulean ordaindu ez zituen kuotak derrigorrez ordaindu behar izatea dagozkion berandutza interesekin batera. Ezarritako obligazioa bete ez den ekitaldian egingo da ordainketa.
- Ez da kenkaria egiteko eskubiderik izango inbertsio berberei beste zerga onura batzuk aplikatzen zaizkienean, honako hauek izan ezik:
 - Amortizazio askatasuna.
 - Amortizazio azkartua.
- Kenkari hau bateraezina da puntu honetan arautzen den hurrengoarekin.

Kenkariaren oinarria

Hitzartutako kontraprestazio osoa izango da kenkariaren oinarria, kanpoan utzita interesak, zeharkako zergak eta beren errekarguak, hauek ez baitira haren barruan konputatuko, aktiboak baloratzean kontuan hartu ahal izango badira ere. Hori bai, oinarri horretatik ondasunak erostegatik jasotako dirulaguntzen %67,5 kendu behar da.

Kutsaduraren eragina murriztu eta zuzentzeko inbertsioak:

Zenbatekoa da kenkaria?

%15 kentzen da inbertsioak honako hauek direnean:

- Jarduera ekonomikoaren kutsagarritasuna murriztu eta zuzentzeari zuzenean lotzen zaizkion aktibo finko material berriaren elementuak.
- Aktibo finkoak eta Euskal Herriko organismo ofizialek onartutako proiektuen ondorioz ekitaldian kutsatu diren lurzorua garbitzeko gastuak.

- Errepide bidezko garraioan erabiliko diren ibilgailu industrial edo komertzial berrien erosketak, baldin eta kutsadura atmosferikoa benetan murrizten laguntzen badute.

Baldintzak

- Kutxatutako lurzorua garbitzeko asmoz aktibo finko material berriaren elementuetan nahiz aktibo finkoetan egiten diren inbertsio eta gastuengatik araututa dagoen kenkaria zergadunak aplikatuko du. Horretarako, Zerga Administrazioak eskatzen dioenean, ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailak emana, frogatuta uzteko egindako inbertsioek eta, egonez gero, izandako gastuek kenkari hau aplikatzeko baldintzak betetzen dituztela.
- Inbertsioa izan duten aktibo finkoek gutxienez bost urteko epean, edo laburragoa bada, erabilgarritasun aldi osoan egon behar dute martxan ingurugiroaren artapen eta hobekuntzari lotuta.
- Aktiboak ezin zaizkie hirugarrenei eskualdatu, errentan eman edo laga erabiliak izateko.
- Epe horretan zergadunak inbertsioa izan duten ondasunak desafektatu, eskualdatu, errentan eman edo lagatzen badiu, kenkariak direla-eta bere ulean ordaindu ez zituen kuotak ordaindu beharko ditu dagozkion berandutza interesekin batera.
- Ez da kenkaria egiteko eskubiderik izango inbertsio berberei beste zerga onura batzuk aplikatzen zaizkienean, honako hauek izan ezik:
 - Amortizazio askatasuna.
 - Amortizazio azkartua.
- Kenkari hau bateraezina da puntu honetan lehen arautu denarekin.

Kenkariaren oinarria

Hitzartutako kontraprestazio osoa izango da kenkariaren oinarria, kanpoan utzita interesak, zeharkako zergak eta beren errekarguak, hauek ez baitira haren barruan konputatuko, aktiboak baloratzean kontuan hartu ahal izango badira ere. Hori bai, oinarri horretatik ondasunak erostegatik jasotako dirulaguntzen %67,5 kendu behar da.

12.4.1.6 Kenkaria esportazio jarduerengatik

Zenbatekoa da kenkaria?

Inbertsioek **%25eko** kenkaria izango dute esportazioari lotutako jarduera hauek direnean:

- Atzerrian sukurtsalak edo establezimendu iraunkorrak sortzea.
- Atzerriko sozietateen partaidetzak erostea eta ondasun eta zerbitzuak esportatzearekin edo Espainian turismo zerbitzuak kontratatzearekin zuzenean lotuta dauden sozietate filialak eratu edo zabaltzea, beti ere, gutxieneko partaidetza sozietate filialak duen kapital sozialaren %25ekoa bada. Ondorio horietarako, finantza eta aseguru jarduerak ez dira hartuko esportazioarekin zuzenean lotutako jardueratzat.
- Ondorengo gastuak:
 - Produktuak ateratzeko urteanitzeko proiektioarekin egiten diren propaganda eta publizitate gastuak.
 - Atzerrian merkatuak zabaltzeko eta aztertzeako gastuak.

- Azoka, erakusketa eta antzeko topalekuetara joateko gastuak. Espainian antolatzen diren nazioarte mai-lakoak ere sartzen dira.

Kenkariaren oinarria

Hiru kasu horietan, egindako inbertsioei jarduera horiek sustatzeko jasotzen diren dirulaguntzen %67,5 kenduko zaie.

Kenkariaren banakako muga

Kenkari honek ezingo du gainditu esportazio jardueragatik eta Espainian turismo zerbitzuak kontratatzeagatik lortzen diren sarrerren %4.

Kendu ez diren kopuruak hurrengo lau urte jarraituetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan aplikatu ahal izango dira, aipatu muga errespetatuz beti.

Gainera, zergadunak kenkari honen aplikazioa atzera dezake. Hau da, iraungitze epearen barruan, emaitza positiboak lortzen dituen lehen ekitaldira arte itxoin dezake kenkaria aplikatzeko, beti ere, emaitza horiek esportazio jardueragatik eta Espainian turismo zerbitzuak kontratatzeagatik lortutako sarrerak badira.

12.4.1.7 Kenkaria lanbide heziketako gastuengatik

Zenbatekoa da kenkaria?

Lanbide heziketako jardueretan egindako gastuek **%10eko** kenkaria dute.

UNE 81900 ziurtagiria lortzeko (lan arriskuen prebentziorako kudeaketa sistema bat ezartzeko arau orokorreari buruzkoa) zergaldian izan diren gastuengatik **%10eko** kenkaria egingo da.

Gainera, ekitaldian izandako gastuak aurreko bi urteetako batez bestekoa baino handiagoak badira, %10 kentzeaz batera, beste kenkari gehigarri bat egingo da, hain zuzen ere, honako hau: ekitaldiko gastuei aurreko bi urteetako gastuen batez bestekoa kentzetik ateratzen denaren %15ekoa.

Kenkariaren oinarria

Kenkariaren oinarria ekitaldian izandako gastuek osatzen dute. Dena den, gastu horiei jarduera hauek egiteko jasotzen diren dirulaguntzen %67,5 kendu behar zaie.

Zer da lanbide heziketa?

Lanbide heziketat hartzen da enpresa batek zuzenean edo hirugarrenen bitartez langileak eguneratu, trebatu edo birziklatzeko sustatzen dituen prestakuntza jarduera guztiak, haien jardueragatik edo lanpostuen ezaugarriengatik beharrezkoak direnean.

ERNE: ez dira inolaz ere lanbide heziketako gastuak izango Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian lan pertsonalaren etekintzat hartzen direnak.

Kenkari hau egingo da, baita ere, entitateak bere langileak teknologia berrietan trebatzeko egindako gastuengatik. Gastu horien artean honako hauek sartzen dira: interneteko konexioa egin, erraztu edo finantzatzeko gastuak, eta interneten sartzeko behar diren ekipoak eta terminalak (software eta periferikoak barne) dohainik edo prezio beheratuarekin erostegatik nahiz maileguak edo diru laguntzak jasotzeagatik sortutako gastuak, baita langileek lantokiz eta ordutegiz kanpo erabili ahal dituztenean ere. Apartatu honetan aipatutako gastuak langileen prestakuntza gastutzat hartuko dira zergaren ondorioetarako, eta ez dute langilearentzako lan etekinik ekarriko.

12.4.1.8 Kenkaria enpresariaren kontribuzioengatik, enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa jarduten duten enpleguko pentsio planei, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egiten zaizkienean.

Zenbatekoa da kenkaria?

Zergadunak %10 kendu dezake enpresariaren langileen alde egotzitako kontribuzio edo ekarpenengatik. Langile bakoitzeko ekarpenaren muga 8.000,00 eurokoa izango da.

Muga

Langile bakoitzeko ekarpenengatik gehienez egin daitekeen kenkaria 8.000,00 eurokoa da.

Baldintzak

- Kontribuzio edo ekarpenak gizarte aurreikuspeneko tresna gisa diharduten enpleguko pentsio planei, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egin behar zaizkie, eta zergadunak haien sustatzaile edo bazkide babesle izan behar du.
- Kontribuzioek edo ekarpenek langileen kolektibo osoarentzat izan behar dute.
- Kenkari hau ezin da aplikatu kontribuzioak egiteko garaian azaroaren 8ko 30/1995 Legeak, aseguru pribatuak antolatu eta gainbegiratzeari buruzkoak, hamalagarren, hamabosgarren eta hamazazpigarren xedapen iragankorretan ezarritako erregimen iragankorrari jarraitu bazaio edo martxoaren 12ko 15/1996 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia aseguru pribatuak antolatu eta gainbegiratzeari buruzko 30/1995 Legearen zenbait zerga xedapenetara egokitzekoak, 3. artikuluan jasotakoa aplikatu bada.

Enplegua murrizteko espediente baten ondorioz langileekin hartutako konpromisoen kasuan ere ez da kenkari hau aplikatuko.

12.4.1.9 Kenkaria haur hezkuntzako lehen zikloa emateko lokaletan egindako inbertsio eta gastuengatik.

Zenbatekoa da kenkaria?

Langileen seme-alabei haur hezkuntzako lehen zikloa emateko Herri Administrazio eskudunak homologatutako lokaletan egiten diren inbertsio eta gastuengatik eta, orobat, zerbitzu hori behar bezala baimendutako hirugarrenenekin kontratatzean izandako gastuengatik, zergadunak **%10eko** kenkaria izango du.

Kenkariaren oinarria

Kenkariaren oinarriari honako zenbatekoak gutxituko zaizkio: enpresak langileei jasanarazitako zerbitzuaren kostua eta aipatutako inbertsio eta gastuak egiteko jasotako dirulaguntzak.

12.4.1.10 Kenkaria enplegua sortzeagatik

Zenbatekoa da kenkaria?

Puntu honetan bi erregimen arautzen dira:

- Aurreko lehen ekitaldiko plantilaren batez bestekoa izaera mugagabeko lan kontratu batekin gehitzen duen **persona/urte bakoitzeko**, zergadunak **3.606,07 euroko kenkaria** egin dezake. Horretarako, beharrezkoa da gehikuntza hori kenkarirako eskubidea sortzen den ekitaldia itxi ondorengo **bi urteetan** mantentzea. Lanaldi partzialeko langileak direnean, horien konputua lan egindako orduen arabera izango da.
- Hitzarmen kolektibo batek erabakitzen badu lan denbora gutxienez **%10** jaitsi behar dela eta, aldi berean, plantilla **%10** gehitu akordio hori ondoko hiru urteetan mantentzeko konpromisoa hartuta, orduan honako zerga onurak aplikatuko dira:
 - Dagoen ibilgetu materiala eta erosten den berria askatasunez amortizatu ahal izango da.

- Aktibo finko material berrietan inbertitzeagatik egiten den kenkariaren portzentajea %35 gehituko da.
- Enplegua sortzeagatik egiten den kenkaria, lehen aipatu duguna, **4.507,59 eurokoa** izango da.

Kenkari hauek **3.005,06 euro** gehituko dira baldin eta kontratatzen diren pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoaren araudiaren arabera **lan merkatuan sartzeko zailtasun berezikotzat** jotzen diren kolektiboren batekoak badira.

Enplegua sortzeagatik egiten diren kenkari horiek bateraezinak dira elkarren artean.

14.2.1.11 Kenkaria energia berriztagarrien iturriak aprobetxatzeko inbertsioengatik

Nork egin dezake kenkaria?

Sozietateen gaineko Zergaren araudian jasotakoaren arabera enpresa txiki eta ertaintzat hartzen diren zergadunek aplikatu dezakete kenkari hau.

Zenbatekoa da kenkaria?

Energia berriztagarrien iturriak aprobetxatzeko asmoz aktibo material berrian egindako inbertsioengatik **%15eko** kenkaria egin daiteke, beti ere instalazio edo ekipoen xedea hauetako bat bada:

- Eguzkiaren energia aprobetxatzea beroa edo argindarra sortzeko.
- Hiri hondakin solidoak edo nekazaritza eta basogintza industrien edo labore energetikoen hondakinen biomasa erre-gai gisa aprobetxatzea, beroa edo argindarra sortzeko.
- Abeltzaintzako ustialekueetatik, ur zikinen arazlekueetatik, effluente industrialetatik edo hiri hondakin solidoetatik datozen hondakin biodegradagarriak tratatzea, biogas bihurtzeko.
- Nekazaritza edo basogintzako produktuak edo koipe erabiliak tratatzea biokarburante bihurtzeko (bioetanola edo biodiesel).

Kenkariaren oinarria

Kenkariaren oinarria egindako inbertsioek osatuko dute. Dena den, inbertsio horien zenbatekoari inbertsioak sustatzeko jasotzen diren dirulaguntzen %67,5 kendu behar zaio.

Baldintzak

- Zergadunak eskatu behar du energia berriztagarrien iturriak aprobetxatzeko egindako inbertsioen kenkaria aplikatzea, eta Zerga Administrazioak onartu behar du gai horretan eskudun diren organoek txostena eman ondoren.
- Ondare elementuek bost urtez egon beharko dute zergadunaren enpresari atxikita, justifikatuta dauden galerak daudenean izan ezik, eta hiru urtez ondasun higiezinaren kasuan, non eta haien erabilgarritasun aldía, Sozietateen gaineko Zergaren araudiak jasotzen duen amortizazio metodoa aplikatuta, ez den txikiagoa.
- Aurreko puntuan adierazitako epeetan zergadunak inbertsioa izan duten elementuak desatxiki eta eskualdatzen baditu, kenkaria aplikatzean ordaindu ez dituen kuotak gehi berandutza interesak ordaindu beharko ditu, elementuak desatxiki edo eskualdatu diren ekitaldiko aitorten-likidaziotik ateratzen den kuotarekin batera.
- Ez da kenkaria egiteko eskubiderik izango inbertsio berberei beste zerga onura batzuk aplikatzen zaizkienean, honako hauek izan ezik:
 - Amortizazio askatasuna.

- Amortizazio azkartua.

12.4.1.12 Aurreko kenkariak aplikatzeko mugak

Sozietateen gaineko Zergaren araudian jasotzen diren zerga onurak, eta eurora egokitzeko planak aurreikusitakoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren foru arauan ezarrita dauden muga eta portzentaje berdinekin aplikatuko dira. Hala ere, esan behar da muga horiek Errenta Zergaren kuota osoari aplikatuko zaizkiola jarduera ekonomikoen etekinek osatutako oinarri ezgarri orokorraren zatiarekin bat datozenean.

Jarraian aipatzen diren kenkariaren batura **ezin da**, kasu honetan, **kuota osoaren %45 baino handiagoa izan**:

- Kenkaria aktibo finko material berrietan inbertitzeagatik.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak sustatzeko kenkaria.
- Kenkaria kultur ondarea babestu eta zabaltzeko jarduerengatik eta zinemagintzan nahiz liburugintzan inbertitzeagatik.
- Kenkaria ikerketa zientifikoko eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik.
- Kenkariak ingurugiroa artatu eta hobetzeko jarduerengatik.
- Kenkaria espazio jarduerengatik.
- Kenkaria enpresarien kontribuzioengatik, enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa jarduten duten enpleguko pentsio planei, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egiten zaizkienean.
- Kenkaria haur hezkuntzako lehen zikloa emateko lokaletan egindako inbertsio eta gastuengatik.
- Kenkaria energia berriztagarrien iturriak aprobetxatzeko inbertsioengatik.

Honako kenkari hauek, ordea, **ez dute muga hori**:

- Kenkaria lanbide heziketako gastuengatik.
- Kenkaria enplegua sortzeagatik.

Kuota osoa txikiegia izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak

Kuota osoa txikiegia izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak, hurrengo bost urte jarraituetan amaitzen diren zergaldietako aitortenetan aplikatu ahal izango dira, baina muga berdina errespetatuz beti.

12.4.2 Kenkaria langileek enpresan parte hartzeagatik

Zenbatekoa da kenkaria?

Zergadunek **%10eko** kenkaria egin dezakete, **1.800,00 euroko** mugarekin, lana egiten duten entitateko edo bere sozietate taldeko beste edozein enpresako akzioak edo partaidetzak erosi edo harpidetzeko zergaldian zehar dirutan jarritako kopuruengatik.

Baldintzak

- Baloreak ezin dira negoziatu merkatuta arautuetan.
- Entitateek enpresa txiki edo ertainak izan behar dute, Sozietateen gaineko Zergaren araudian xedatutakoaren arabera.
- Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako sozietate taldeen kasuan ere aplikatu ahal izango da kenkari hau taldeko beste edozein sozietateren akzioak edo partaidetzak erosterakoan, beti ere, aurreko bi letretan aurreikusitako baldintzak betetzen direnean.

- Akzio edo partaidetzak erosi edo harpidetzeko eskaintza baldintza berdinetan egin behar zaie entitateetako langile guztiei, inor diskriminatu gabe.
- Langile bakoitzak -eta honekin batera, ezkontideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote lagunak edo laugarren mailarainoko senideek, hauek barne- ezin dute, zuzenean edo zeharka, %5etik gorako partaidetza eduki entitate horretan edo taldeko beste edozeinetan.
- Kenkari honetarako eskubidea ematen duten akzio edo partaidetzak gutxienez bost urtez mantendu behar dira zergadunaren-langilearen ondarean. Zergadunak ez badu epe hori betetzen, behar ez bezala egindako kenkariak itzuli beharko ditu eta dagozkion berandutza interesak ordaindu. Kopuru hori epea bete ez den ekitaldiko kuota diferentzialari gehituko zaio. Alabaina, zergadunak lehenago ordain ditzake behar ez bezala egindako kenkariak eta dagozkien berandutza interesak, hurrengo urteko aitortpenaren zain egon gabe.

12.4.3 Kenkaria jarduera ekonomiko baten hasieran inbertitzeko kreditu entitateetan egiten diren gordailuengatik (Enpresa aurrezki-kontua)

Zenbatekoa da kenkaria?

Kreditu entitateen kontuetan sartutako kopuruengatik zergadunak %10eko kenkaria egin dezake, 2.000,00 euroko mugarekin urtean. Horretarako, baldintza hau bete beharko da: kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak jarduera ekonomiko bat hasteko beharrezkoak diren gastu eta inbertsioetara bakarrik zuzentzea kontua ireki denetik hasi eta 3 urteko epean.

Baldintzak

- Honako gastu eta inbertsioak jotzen dira jarduera ekonomiko bat hasteko beharrezkotzat:
 - Jarduera ekonomiko bat bere kabuz, ohikotasunez eta zuzenean burutzeko zergadunak egindako gastu eta inbertsioak¹²¹.

Besteak beste, honako hauek hartuko dira jarduera berri bat hasteko gastu eta inbertsioetatik:

 - Jarduerari bakarrik atxikitako ibilgetu material eta inmateriala erostea.
 - Eraketa gastuak eta lehen aldiz finkatzeak.
- Sozietateen gaineko Zergari lotutako entitate berrien partaidetzak harpidetzea.
- Kenkari hau egin ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:
 - Zergaduna lehenago aritu ez izana, ez zuzenean ez zeharka, berritzaletan jotzen denaren pareko jarduera ekonomiko batean.
 - Diru ordaintzak entitateen partaidetzak harpidetuz egiten direnean, zirkunstantzia hauek betetzea:
 - Entitateak jarduera ekonomiko bat egitea benetan.
 - Zergadunak gutxienez %20ko partaidetza edukitzea zuzenean entitatearen kapital sozialean.

- Zergadunak zuzendaritza lanak egitea entitatean edo bertan lanaldi osoko lan kontratu batekin aritzea, eta horregatik jasotzen dituen ordainsariak Errenta Zergaren oinarri ezargarriaren %50etik gorakoak izatea.
- Entitatea ondare sozietate bat ez izatea, eta ondare sozietateetat hartzeko zirkunstantziak entitatea eratu ondorengo bi urteetan ez gertatzea.
- Partaidetzak ezin dira inter vivos moduan eskualdatu horiek erosi edo harpidetu ondorengo bi urteen barruan.
- Entitate berriak besteak beste hurrengo gastu eta inbertsioetara zuzendu behar ditu, urtebeteko epean gehienez balio osoz eratu denetik aurrera, kenkarira bildutako bazkideek jarritako fondoak:
 - Jarduerari bakarrik atxikitako ibilgetu material eta inmateriala erostera.
 - Eraketa gastuak eta lehen aldiz finkatzeak ordaintzera.
- Jarduera ekonomikoari dagozkion ondasun salmentak eta zerbitzu prestazioak 3 urteko epean ohikotasunez egiten hasia, kontua ireki den egunetik aurrera.

- Zergadun bakoitzak kontu bakarra eduki ahal izango du jarduera ekonomiko hasteko behar diren gastu eta inbertsioetan erabili beharreko kopuruak gordailatzeko.
- Kenkari hau behin bakarrik aplikatuko du zergadun bakoitzak. Kenkaria egin eta jarduera ekonomiko hasteko gastu eta inbertsioak gauzatu ondoren, ezin izango da berriro egin kenkaria.
- Mota horretako kontuak bereizita identifikatuko dira Zergaren aitortpenean. Gutxienez datu hauek jarri beharko dira:
 - Zein entitateetan ireki den kontua.
 - Sukurtsala.
 - Kontu zenbakia.
 - Kontuaren irekitze data.
 - Kontuaren saldoa ekitaldian izan duen gehikuntza, aurreko ekitaldiaren aldean.

Kenkarirako eskubidea galtzea

Kenkarirako eskubidea ondoko kasuetan galduko da:

- Zergadunak kenkarirako eskubidea sortu duten eta enpresako aurrezki kontuan gordailatu diren kopuruak aurreko apartatuan aipatutakoak ez diren helburuetarako erabiltzen dituzenean eta kopuru haiek kreditu entitate bereko edo beste entitate bateko beste kontu batean osorik birjarri edo aldatzen ez direnean. Zati bat erabiliz gero, zergadunak erabilitako kopuruak lehendabizi gordailatutakoak direla ulertuko da.
- Kontua ireki denetik hiru urte igaro direnean, kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak jarduera ekonomiko hasteko behar diren gastu eta inbertsioetarako erabili gabe.
- Zergadunak hasitako jarduera ekonomikoak kenkari honetarako eskubidea sortzen duten baldintzak betetzen ez dituzenean.
- Partaidetzek zergadunaren ondarean irauteko epea edo entitate sortu berriari jarritako baldintzak betetzen ez direnean.

¹²¹ Ikus gidaliburu honetako 5. kapitulua.

LABURPENA: jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak		
Aktibo finko material berrietan egindako inbertsioak		%10
Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak sustatzeko inbertsioak		%10
Kultur Ondarea babestu eta zabaltzeko inbertsioak		%15
Zine edo ikus-entzunezko espainiar produkzioak, produktorearentzat		%20
Ikus-entzunezko espainiar produkzioak, koproduktore finantzarioarentzat		%5
Liburugintza		%5
Ikerketa eta garapena		%30 Aurreko bi urteetan egindako gastuen batez bestekoarekiko dagoen soberakinaren %50. Ikertzaile kualifikatuek eta Unibertsitatearekin etab. kontrataturiko proiektuek sortutako gastuen %20. Ikerketa eta garapen jardueri lotutako ibilgetu material eta immaterialaren elementuetan inbertitutakoaren %10.
Berrikuntza teknologikoa		Unibertsitatei enkargaturiko proiektuek eta ISO 9.000, ISO 14.000, GMP... ziurtagiriek sortutako gastuen %15. Diseinu industrialagatik, produkzio prozesuen ingeniariatzagatik, teknologia aurreratuagatik, etab. izandako gastuen %10.
Ingurugiroaren artapena eta hobekuntza		Teknologia Berrien Euskal Zerrenda: %30 Kutsadura murriztu eta zuzentzeko inbertsioak: %15
Esportazio jarduerak		%25
Lanbide heziketako gastuak		%10 Aurreko bi urteetan egindako gastuen batez bestekoarekiko dagoen soberakinaren %15.
Borondatezko gizarte aurreikuspeneko tresna gisa jarduten duten enpleguko pensio planei, mutualitatei edo BGA Eei egindako kontribuzio enpresarialak		%10
Haur hezkuntzako lehen zikloa langileen seme-alabentzat		%10
Enplegua sortzea	3.606,07 €	4.507,59 €
Enplegua sortzea lan merkatuan sartzeko zailtasun berezikoak diren langileentzat	6.611,13 €	7.512,65 €
Energia berriztagarrien iturriak aprobetxatzea		%15
Langileek enpresan parte hartzea		%10
Enpresa aurrezki-kontua		%10

12.5 Kenkariak dohaintzengatik

12.5.1 Mezenasgo jarduerengatik

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarri buruzko foru arauan¹²² zerga honetarako aurreikusitako kenkariak aplikatu ahal izango dituzte zergadunek.

Laburki, honako kenkariak aipa daitezke:

- Mezenasgoari eta lehenasunezko jardueri egindako dohaintzengatik: %30.
- Zuzeneko zenbatespenean dauden zergadunek lehenasunezko jardueretarako egindakoengatik: %18.

Kenkariaren oinarria

Kenkariaren oinarria **ezin da** hurrengo kontzeptuak murriztu ondoren ateratzen den oinarri ezargarriaren **%30 baino handiagoa izan**:

- Ezkontidearen alde edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunaren alde emandako pensio konpentsagarriak, eta urteko mantenturako ordainketak, zergadunaren seme-alaben alde finkatutakoak izan ezik, biak ere erabaki judizialen ondorioz ordainduak.
- Mutualitatei, aurreikuspen plan aseguratuei, pensio planei eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitatei egindako ekarpenak.

Kenkariaren muga

Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik eta mezenasgo jarduerengatik kenkarirako eskubidea ematen duten zenbatekoen baturak **ezin du** oinarri ezargarriaren **%60 gainditu**. Honako kontzeptu hauek murriztuko zaizkio beti oinarri ezargarriari:

- Ezkontidearen alde edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunaren alde emandako pensio konpentsagarriak, eta urteko mantenturako ordainketak, zergadunaren seme-alaben alde finkatutakoak izan ezik, biak ere erabaki judizialen ondorioz ordainduak.
- Mutualitatei, aurreikuspen plan aseguratuei, pensio planei eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitatei egindako ekarpenak.

Ohiko etxebizitza 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi bada eta kenkari honetarako eskubidea badu, zergadunak konpentsazio erregimena aplikatzea aukeratu dezake kenkari hori arautzen duen erregimen berria Errenta Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauan jasotakoa baino aldekoagoa gertatzen zaionean. Erregimen hau aukeratzen badu, ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik (amortizazioa) eta mezenasgo jarduerengatik egiten diren kenkari oinarriak ezin du oinarri ezargarriaren %30 gainditu. Kontuan eduki behar da, dena den, oinarri ezargarriari murrizpen hauek egiten zaizkiola: ezkontidearen alde edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunaren alde emandako pensio konpentsagarriak, urteko mantenturako ordainketak (seme-alaben alde finkatutakoak izan ezik), biak ere epaileen erabakiz ordainduak, eta mutualitatei, aurreikuspen plan aseguratuei, pensio planei eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitatei egindako ekarpenak.

¹²² Ikus apirilaren 7ko 3/2004 Foru Araua, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarri buruzkoa.

12.6 Kenkariak ezarpen bikoitzagatik

Batzuetan, kontzeptu berberagatik bi aldiz ordaintzen da zerga, hau da, ezarpen bikoitza gertatzen da. Egoera hori zuzentzeko, apartatu honetan aipatzen diren kenkariak egiten dira:

- Dibidenduen ezarpen bikoitza zuzentzeko kenkaria.
- Nazioarteko ezarpen bikoitza zuzentzeko kenkaria.

12.6.1 Kenkaria dibidenduen ezarpen bikoitzagatik

Zenbatekoa da kenkaria?

Hurrengo portzentajeak aplikatuta ateratzen diren zenbatekoak kenduko dira:

- %40, oro har.
- %25, lortutako etekina %125arekin biderkatu denean, Sozietateen gaineko Zergan %25eko tasaren arabera tributatzatzen duten entitateak izateagatik.
- %0, lortutako etekina %100ekin biderkatu denean, tasa murritzuaeren arabera tributatzatzen duten entitateak izateagatik.

Kooperatiba babestuen eta bereziki babestuen¹²³ itzulkiniei ezarpen bikoitzagatik dagozkien kenkariak honako hauek dira:

- Kooperatiba babestuen itzulkinak: %10.
- Bereziki babestutako kooperatiben itzulkinak: %5.

Kenkariaren oinarria

%40, %25, %10, %5 eta %0ko portzentajeak aplikatzeko hartzen diren kenkariaren oinarria jasotako zenbateko osoak osatzen du.

Kuota osoa txikiegia izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak

Kenkari hau ezin bada egin kuota osoa txikiegia delako, hurrengo lau urte jarraituetan aplikatuko ahal izango da.

Adibidea

2005. urtean zehar honako dibidendu eta mozkin partaidetza hauek jaso dituzu hainbat entitatetatik:

Jatorria	Zenbateko osoa	Atxikipenak	Zenbateko likidoa
“M” banku espainiarraren akzioak, Burtsan kotizatzen dutenak	570,96 €	85,64 €	485,32 €
“P” kooperatiba babestutik (itzulkinak)	390,66 €	58,60 €	332,06 €
“W” sozietate ez egoiliarretik (*)	751,27 €	-----	751,27 €

(*) Dibidenduak egoiliarra ez den entitate batetik datozenez,

¹²³ Ikus maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Araua, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoa (25. art.).

jatorrizko herrialdean ordaintzen dituzun zergak ez dira konturako atxikipentzat hartzen.

Jatorria	Jasotako zenbateko osoa	Integrazio %	Komputatzen den zenbateko osoa	Kenkari %	Kenkaria
“M” bankuaren dibidenduak	570,96 €	%140	799,34 €	%40	228,38 €
“P” kooperatibaren itzulkinak	390,66 €	%100	390,66 €	%10	39,07 €
“W” sozietatearen dibidenduak	751,27 €	%100	751,27 €	%0	0 €

12.6.2 Kenkaria nazioarteko ezarpen bikoitzagatik

Zergadunaren errentan atzerrian lortu eta zergapetu diren etekin edo ondare irabaziak daudenean, zenbateko jakin batek izan dezake kenkaria. Ondoko hauetako **txikiena** hartuko da kenkaria egiteko.

- Etekin edo ondare irabazi horien gainean antzeko zerga batenagatik edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren pareko karga batenagatik atzerrian ordaindutako zenbateko efektiboa.
- Atzerrian lortutako errentari batez besteko karga tasa, orokorra edo berezia, aplikatzearen emaitza. Karga tasa hori izan daiteke:
 - **Orokorra**, atzerrian lortu eta zergapetu den errenta oinarri likidagarri orokorrean sartu bada.
 - **Berezia**, etekin horiek oinarri likidagarri berezian sartu badira.

Adibidea

Zure oinarri likidagarri orokorra 18.030,36 eurokoa da. Horietatik 3.005,06 euro atzerrian lortu dituzu, eta horiek han zergapetu dira Errenta Zergaren antzeko zerga bat dela eta. 721,21 euro ordaindu behar izan dituzu horren ondorioz.

Bestalde, zure oinarri likidagarri berezia 3.005,06 eurokoa da. Horietatik 1.202,02 euro atzerrian lortu dituzu, eta horiek han zergapetu dira Errenta Zergaren antzeko zerga bat dela eta. 300,51 euro ordaindu behar izan dituzu horren ondorioz.

Oinarri likidagarri orokorra	18.030,36 €	
	13.872,00 €	2.101,20 €
	(18.030,36 € - 13.872,00 €)ren %28	1.164,34 €
	Guztira	3.265,54 €
Batez besteko tasa orokorra	$(3.265,54 / 18.030,36 €) \times 100$	18,11
Atzerrian etekinei aplikatutako batez besteko tasa orokorra	(3.005,06 €)ren %18,11	544,22 €
Oinarri likidagarri berezia		3.005,06 €
Kuota berezi osoa	(3.005,06 €)ren %15	450,76 €
Atzerriko etekinei aplikatutako tasa berezia	(1.202,02 €)ren %15	180,30 €
Atzerrian ordaindutako zerga	721,21 €+300,51 €	1.021,72 €
Gipuzkoako zerga	544,22 €+180,30 €	724,52 €

Nazioarteko ezarpen bikoitzagatik egin daitekeen kenkaria azken bi horietako txikiena izango da. Hau da, 724,52 euro.

12.7 Bestelako kenkariak

12.7.1 Kenkariak Ceuta edo Melillan lortutako errentengatik

Zenbatekoa da kenkaria?

Oinarri likidagarria kalkulatzeko konputatzen diren etekin positibo edo ondare irabazien artean Ceutan edo Melillan lortutakoak egonez gero, kuota osotik horien %50 kenduko da.

Hala ere, kenkari hau ez da hurrengo kasuotan aplikatuko:

- Errentak inbertsio kolektiboko erakundeetatik datozenean.
- Ondare irabaziak lurralde horietan kokaturiko ondasun higiezinetatik datozenean.
- Obligazio edo maileguetatik datozen kapital higikorren etekinak direnean, baldin eta kapitalak lurralde horietan inbertituta badaude eta dagozkien etekinak lurralde horietan sortzen ez badituzte.

Adibidea

Gipuzkoan lortu dituzten lan etekin garbiak 12.020,24 eurokoak izan dira guztira. Era berean, Ceutan errentan emandako ondasun higiezin batengatik, 3.305,57 euroko etekin garbiak lortu dituzu.

Oinarri likidagarri orokorra	12.020,24 € + 3.305,57 €	15.325,81 €
Kuota osoa	13.872,00 €	2.101,20 €
	15.325,81 € - 13.872,00 €)ren %28	407,07 €
	Guztira (2.101,20 € + 407,07 €)	2.508,27 €
Kenkaria Ceutan lortutako etekinengatik	(2.508,27 x 3.305,57) / 15.325,81ren %50	270,50 €

12.7.2 Kenkariak nazioarteko gardentasun fiskaleko erregimenean

Dibidenduak edo mozkin partaidetzak banatzeagatik atzerrian ordaindutako zerga edo karga kendu ahal izango da kuotatik, oinarri ezargarrarian sartutako errenta positiboari dagokion zatian beti ere. Atzerriko zerga ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen bat aplikatuz edo dagokion herrialde edo lurraldearen barne legeriari jarraituz ordain daiteke.

Kenkari hau egingo da nahiz eta errenta positiboa oinarrian sartu den ekitaldia eta zergei dagozkien ekitaldiak berdinak ez izan.

Erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatuta dauden herrialde edo lurraldeetan ordaintzen diren zergek ez dute inoiz kenkaririk izango.

Kenkari horrek muga bat du eta zera da, ezin dela oinarri ezargarrarian egotzitako errenta positiboagatik Espainian ordaindu beharko litzatekeen kuota osoa baino handiagoa izan.

12.8 Kenkari jakin batzuen muga

Etxebizitzan inbertitzeagatik eta mezenazgo jarduerengatik egiten diren kenkari guztien oinarriak ezin du oinarri ezargarrarian %60a gaintitu. Kontuan hartu behar da, dena den, oinarri ezargarrarian hurrengo kontzeptu hauek gutxitu behar zaizkiola:

- Ezkontidearen alde edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-lagunaren alde emandako pentsio konpentsagarriak, eta urteko mantenturako ordainketak, zergadunaren seme-alaben alde finkatutakoak izan ezik, biak ere erabaki judizialen ondorioz ordainduak.
- Mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpenak.

Adibidea

Demagun 21.035,42 euroko oinarri ezargarraria duzula. Zure ezkontide ohiari 3.005,06 euroko pentsio konpentsagarria ordaindu diozu eta honako kenkariak daukazazu:

	Portzentajea	Oinarria	Kenkaria
Ohiko etxebizitzan inbertitzea	%15	4.207,08 €	631,06 €
Etxebizitzaren erosketa finantzatzea	%20	2.404,05 €	480,81 €
Gurutze Gorriari emandako zenbatekoa	%30	4.808,10 €	1.442,43 €
BATURA		11.419,23 €	2.554,30 €

Kenkariaren oinarria			11.419,23 €
Etxebizitzan inbertitutakoaren gehienezko kenkaria	%60	21.035,42 € - 3.005,06 €	10.818,22 €
Mezenasgo jardueren gehienezko kenkaria	%30	21.035,42 € - 3.005,06 €	5.409,11 €
Bi kenkarien baterako muga	%60	21.035,42 € - 3.005,06 €	10.818,22 €

Zein kenkari aplikatu behar den lehenago ez da legez ezartzen. Hala ere, etxebizitzan egindako inbertsioaren kenkariari dagokionez, aurrenik inbertsio kontzeptuarena aplikatzen da eta gero finantzazioarena.

	Portzentajea	Oinarria	Kenkaria
Gurutze Gorriari emandako zenbatekoa	%30	4.808,10 €	1.442,43 €
Etxebizitzan inbertitzea	%15	4.207,08 €	631,06 €
Etxebizitza finantzatzea	%20	1.803,04 €	360,61 €
BATURA		10.818,22 €	2.434,10 €

12.9 Frogagiriak

Kenkari hauek aplikatu ahal izateko, dagozkien frogagiriak aurkeztu behar dira. Agiri horiek enpresari eta profesionalak fakturak egin eta emateko duten obligazioari buruzko arauetan ezarrita dauden baldintzak bete beharko dituzte.

LABURPENA: kuotako kenkariak	
Kenkari mota	Kenkaria
Ondorengo ahaideengatik	Lehenengoa – 469,00 € Bigarrena – 576,00 € Hirugarrena – 867,00 € Laugarrena – 1.122,00 € Bosgarrena eta hurrengoak – 1.530,00 €
6 urtetik beherako ondorengo ahaideengatik	255,00 €
Adopzioagatik	61200 € %20
Urteko mantenua ordaintzeagatik	%15 Muga: 1. seme-alaba – 134,00 € 2. seme-alaba – 166,00 € 3. seme-alaba – 198,00 € Laugarrena – 256,00 € Bosgarrena eta hurrengoak – 348,00 €
Aurreko ahaideengatik	206,00 €
Zergaduna, aurreko nahiz ondorengo ahaidea, ezkontidea, maiztaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-laguna, edo laugarren mailarainoko zeharkako ahaidea ezindua izateagatik	- Minusbaliotasuna %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa bada: 612,00 euro. - Minusbaliotasuna %65ekoa edo handiagoa bada: 938,00 euro. - Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 eta 39 puntu bitartean lortuz: 1.122,00 euro - Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortuz: 1.428,00 euro.
Zergadunarekin bizi den 65 urteko edo hortik gorako pertsona ezinduagatik	- Minusbaliotasuna %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa bada: 306,00 euro. - Minusbaliotasuna %65ekoa edo handiagoa bada: 469,00 euro. - Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 eta 39 puntu bitartean lortuz: 561,00 euro. - Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa bada, hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortuz: 714,00 euro.
Adinagatik	- 65 urtetik gorakoak: 204,00 € - 75 urtetik gorakoak: 408,00 €
Etxebizitza errentan hartzeagatik	- Orohar: %20. Muga: 1.600,00 € - %25, 2.000,00 €-ko mugarekin, honako hauek direnean: . 35 urtetik beherakoak. . Familia ugariak titularrak. . Ezintasun iraukerak bat aitortua dutenak, maila osokoa, erabatekoa edo elbarritasun handikoa. . Eusko Jaurlaritzaren “Bizigune Programara” bilduta dauden errentariak.

LABURPENA: kuotako kenkariak	
Etxebizitza errentan emateagatik	%20, muga: 1.600,00€
Etxebizitza erosi edo birgaitzeagatik (Kenkari honen oinarriak ezin du gaintitu pensio konpentsagarriak, urteko mantenurako ordainketak eta mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pensio planei eta BGA Eei egindako ekarpenak gutxitu ondoren ateratzen den oinarri ezargarriaren %60)	Inbertsioagatik %15 (%25, 35 urtetik beherakoak eta familia ugariaren titularrak) ¹²⁴ Finantzazioagatik (maileguaren interesak) %20 (%30, 35 urtetik beherakoak eta familia ugariaren titularrak) ¹²⁵
Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak	Sozietateen gaineko Zergaren arabera zuzeneko zenbatespena erabiliz gero. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak sustatzeko kenkaria, modulu bidezko zenbatespen objektiboa erabiliz gero.
Langileek enpresan parte hartzeagatik	%10. Muga: 1.800,00 €
Enpresa aurrezki-kontuagatik	%10. Muga: 2.000,00 €
Mezenasgo jarduerengatik Kenkari honen oinarriak ezin du gaintitu pensio konpentsagarriak, urteko mantenurako ordainketak eta mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pensio planei eta BGA Eei egindako ekarpenak gutxitu ondoren ateratzen den oinarri ezargarriaren %30. Era berean, ezin du gaintu ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik eta ohiko etxebizitza familia ugarietako erosteagatik egiten den kenkariarekin batera ateratzen den oinarri ezargarriaren %60.	%30 eta %18
Dibidenduen ezarpen bikoitzagatik	%40, %25, %10, %5 edo %0
Nazioarteko ezarpen bikoitzagatik	Hauetan txikiena a) atzerriko zerga b) batez besteko tasa orokor edo bereziaren arabera lortutako errenta
Ceuta edo Melillan errentak lortzeagatik	%50
Nazioarteko gardentasun fiskala	Atzerriko zerga

¹²⁴ Zergadunek inbertsioaren %25eko kenkaria egin dezakete baldin eta 2005eko urtarrilaren 1ean 35 urte baino gutxiago badituzte edo familia ugariaren titularrak badira. 35 urtetik beherako kasuan, %25eko portznetajea aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da pensio konpentsagarriekin eta urteko mantenurako ordainketekin murriztutako oinarria ezargarria 30.000,00 eurokoa baino handiagoa ez izatea.

¹²⁵ Zergadunek finantzazioaren %30eko kenkaria egin dezakete baldin eta 2005eko urtarrilaren 1ean 35 urte baino gutxiago badituzte edo familia ugariaren titularrak badira. 35 urtetik beherako kasuan, %30eko portznetajea aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da pensio konpentsagarriekin eta urteko mantenurako ordainketekin murriztutako oinarria ezargarria 30.000,00 eurokoa baino handiagoa ez izatea.